



Dokumentazio zerbitzuak Euskal
Herriko Komunikabideetan

Los servicios de documentación
en los medios de comunicación del País Vasco

Teresa Agirreazaldegui
Idoia Camacho
(arg./ed.)

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



KAZETARITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE PERIODISMO
DEPARTMENT OF JOURNALISM

Dokumentazio zerbitzuak Euskal
Herriko komunikabideetan

Los servicios de documentación
en los medios de comunicación del País Vasco

Dokumentazio zerbitzuak Euskal
Herriko komunikabideetan

Los servicios de documentación
en los medios de comunicación del País Vasco

Teresa Agirreazaldegi
Idoia Camacho
(arg./ed.)

eman ta zabal zazu



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN
ZERBITZUA
SERVICIO EDITORIAL

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-223-4

Depósito legal/Lege gordailua: BI - 1174-09

Fotocomposición/Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Aurkibidea

Índice

Aurkezpena	9
Presentación	13

1. ATALA • IKERKETAK

1.ª PARTE • INVESTIGACIONES

I.	Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio zerbitzuen analisia. <i>Teresa Agirreazaldegia, M.ª Milagros Ronco eta Idoia Camacho</i>	19
II.	Los documentalistas en las redacciones digitales de prensa y televisión: nuevos retos profesionales. <i>Pere Masip, Josep Lluís Micó y José Alberto García Avilés</i>	41
III.	Documentación digital y gestión de contenidos en la televisión de hoy. <i>Carmen Peñafiel y Nereida López</i>	61
IV.	Los documentos audiovisuales y su conservación. <i>M.ª Milagros Ronco López</i>	73
V.	Tresna linguistikoak informazioa atzitzeko. <i>Eneko Agirre eta Iñaki Alegria</i>	101
VI.	<i>Sarean Zer?</i> Interneteko berriak lotzeko baliabidea. <i>Gregorio Hernández</i>	113

2. ATALA • PROFESIONALEN EKARPENAK
2.ª PARTE • APORTACIONES PROFESIONALES

VII.	Euskadi Irratiko Artxiboa. <i>Iñigo Ceberio</i>	123
VIII.	Catalogación y ambientación del sonido en radio y televisión. <i>Itziar Mendia</i>	129
IX.	El área de archivo en el proyecto de digitalización de ETB. <i>Jesús Andérez</i>	141
X.	Media Asset Management (M.A.M.) y plataformas de digitalización de contenidos de ETB. <i>Koldo Lizarralde</i>	159
XI.	El servicio de documentación de la agencia de noticias Atlas País Vasco. <i>Sonia Guardado</i>	183
XII.	Sistema de trabajo del centro de documentación del periódico <i>El Correo</i> . <i>Jesús Oleaga</i>	185
XIII.	La documentación del grupo Vocento. <i>Mauricio Martín</i>	203
XIV.	<i>Berria</i> egunkariaren dokumentazio zerbitzua: bi datu-base kazetarien zerbitzura. <i>Margari Eizagirre eta Jon Barandiaran</i>	211
XV.	El servicio de documentación del Grupo Noticias. <i>Isabel Muñoz e Itziar Aldaz</i>	229
XVI.	La hemeroteca de EITB: la orientación al cliente. <i>Marta Iturregi</i>	235
XVII.	Euskarazko tokiko hedabideen balio dokumentalaz. <i>Joxe Rojas</i>	261
XVIII.	Hemeroteca Plus: publikazio idatzien ustiaketa digitala. <i>Julen Arrizabalaga</i>	267
Anexoa	Gida: Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio zerbitzuak. <i>Teresa Agirreazaldegi, M.ª Milagros Ronco eta Idoia Camacho</i>	273

Aurkezpena

Liburu honek Dokumentazioaren inguruko hemeretzi ekarpen jasotzen ditu. Unibertsitateko ikerketa eta lan jarduerako fruituak dira, eta Euskal Herriko komunikazio enpresetan dokumentazio sektorea nola dagoen erakusten dute. Komunikabideetako Dokumentazioari Buruzko I. Jardunaldietan aurkeztutako txostenak dira. Euskal Unibertsitateko Kazetaritza Sailak antolatu zituen jardunaldi horiek, Bizkaiko campusean, Leioan, 2008ko apirilaren 24an eta 25ean. Txosten horiei intereseko beste lan batzuk gehitu zaizkie, ikerlarienak eta profesionalenak horiek ere. Lana komunikazio eta dokumentazio alorretako ikasleentzat eta eremu bateko zein besteko profesionalentzat da batez ere, baina baita jorratutako gaitan interesa duen edozeinentzat ere.

Argitalpena bi ataletan egituratuta dago. Lehendabizikoak sei kapitulu ditu, eta dokumentazioaren eta informazioaren berreskurapenaren inguruko ikerketak jasotzen ditu. Bigarren atalak, berriz, sektoreko hamabi profesionalen ekarpenak eta gida bat jasotzen ditu.

Lanaren lehenengo kapitulua «Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio-zerbitzuen analisia» da, eta hor Teresa Agirreazaldegi, Milagros Ronco eta Idoia Camacho Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek, hamabost komunikabideetako dokumentazio zerbitzuen ezaugarriak, egitura, betebeharrak, funtsak, digitalizazio prozesua eta egitasmoak jaso, aztertu eta alderatu ondoren, dokumentazio sektorearen diagnosis egin dute.

José Alberto Garcíak, Miguel Hernández Unibertsitateko irakasleak, eta Josep Lluís Micó eta Pere Masipek, biak Ramón Llull Unibertsitatekoak, bestalde, dokumentalistek prentsa eta telebistako erredakzioetan zer lan egiten duten eta haien egoera aztertu dute, eta erronka profesional berriak azpimarratu «Los documentalistas en las redacciones digitales de prensa y televisión: nuevos retos profesionales» izenburuko txostenean. Erredakzioen digitalizazioak eta Interneten erabilerak kazetarien eta dokumentalisten lana, eta lanbidea bera ere, nola aldatu duten azaldu dute.

Carmen Peñafiel eta Nereida Lópezek ere, Euskal Herriko Unibertsitateko eta IORTVko irakasleek hurrenez hurren, digitalizazioa telebistan eragiten ari den aldaketak azaldu dituzte. Euren txostenean («Documentación digital y gestión de contenidos en la televisión de hoy») idazgeletako eta ikus-entzunezko dokumentazio prozesuak deskribatu, eta dokumentalistaren lan errutina nola aldatu den eta erredakzioetan haren rola nola indartu den aztertu dute.

Laugarren kapituluan, Milagros Ronco Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, Munduaren Memoria Kontserbatu Unescoren programa ezagunetik abiatuta, ikus-entzunezko dokumentuak gordetzearen inguruan dauden arazo-zen berri ematen digu. Ronco dioenez, ikus-entzunezko dokumentuen kontserbazioari, zein azken finean guztien memoria kontserbatzea den, garrantzi sozial eta politiko gutxi ematen zaio.

Informazioa berreskuratzeko aurrerabide informatikoetan du arreta jarrita liburu honek jasotzen duen bigarren ikerketa arloak. Hala, bosgarren kapituluan, Eneko Agirre eta Iñaki Alegria Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, IXA taldekoek, «Tresna linguistikokoak informazioa atzitzeko» txostena aurkeztu dute. Egileen hitzetan, hemeroteka digitaletan informazioa bilatzea gero eta zailagoa da, gero eta informazio gehiago metatzen delako; bestalde, sarritan bilaketa hainbat hizkuntzatan dauden dokumentuetan egiten denez, zailtasuna areagotu egiten da. Txostenak bilaketarako teknologia aurkezten du eta, testuinguru horretan, tresna linguistikokoek modu erosoan emaitza zehatzagoa lortzen nola laguntzen duten aztertzen du.

Seigarren kapituluaren gaia ere informazio bilaketari buruzkoa da, eta «Sarean zer?: Interneteko berriak lotzeko baliabidea» izenburua du. Interneten bidez hedatzen diren informazio mota desberdinek ez dute loturarik euren artean, ez daude antolatuta. Horregatik, informazioa ikuspegi semantiko orokor batetik berreskuratu nahi dugunean, ezinezkoa egiten zaigu. Gregorio Hernándezek, Eleka Ingeniaritza Linguistikokoak, egunkari digitalen eremuan arazo horri aurre egiteko baliabide bat erakusten du: egunkari batean eta bestean argitaratutako albisteak harremanetan jartzea da helburua.

Bigarren atalean komunikabideetako profesionalen ekarpenak jaso ditugu, non euren dokumentazio zerbitzuak aurkezten dituzten. Ordena honetan antolatu dira: irratia, telebista eta prentsa. Azkenik, prentsako datu-baseen banatzaile baten aurkezpenarekin eta dokumentazio zerbitzuen gida batekin bukatzen da liburua.

Liburuaren bigarren atala Iñigo Ceberio *Euskadi irratiko* fonotekako arduradunaren txostenarekin hasten da, «*Euskadi irratiko* ondare dokumentalaren digitalizazioa», non irratia digitalizazio prozesua nola egin den kontatzen duen. Prozesu hori 1996an hasi zuten, dokumentu guztiak formatu digitalean artxibatzea erabaki zutenean, programazio historikoarenak zein fonoteka musikalarenak.

Zortzigarren kapituluan, Itziar Mendiak, «Catalogación y ambientación del sonido en radio y televisión» txostenean, *Radio Euskadi* irratiko dokumentazio zerbitzuan izandako 25 urteko esperientzia kontatzen du. Irratiko girotze mu-

sikala lana azaltzen du, eta datu-baseen egitura eta ezaugarriak deskribatzen. Amaitzeko, *EITB Taldeko* fonoteka digitalaren egitasmoaren berri ematen du.

Jesús Andrézek, *ETBko* Dokumentazio eta Artxibo Saileko buruak, telebista saioak gordetzeko eta dokumentatzeko orduan teknologia digitalek ekarri dituzten aldaketei buruz dihardu «El área de archivo en el proyecto de digitalización de *ETB*» txostenean. *Euskal Telebistako* digitalizazio egitasmoaren urratsen ikuspegi orokorra eskaintzen du, eta katalogaziorako eta ikus-entzunezko eduki digitalen kudeaketa osorako tresnen adibideak erakusten.

Koldo Lizarralde *ETBko* ingeniartzako zuzendari ondokoak *ETBko* digitalizazio prozesua ulertzen laguntzen digu «*Media Asset Management (MAM)* y plataformas de digitalización de contenidos en *ETB*» txostenean, eta honako galdera hauei erantzuten die: zer dira MAM sistemak edo eduki digitalak kudeatzeko softwarea?; zer dira eduki digitalak?; eduki digitalak nola editatzen, publikatzen eta artxibatzen dira? Eta, bide batez, *Euskal Telebistako* edukien digitalizazio prozesua azaldu du.

Sonia Guardado *Atlas del País Vasco* albiste agentziako dokumentalistak agentziaren ezaugarriak, dokumentazio funtsak eta dokumentazio zerbitzuko lana azaldu ditu.

Prensa idatziari dagokionez, Jesús Oleaga *El Correo* egunkariko dokumentazio buruak egunkari horretako dokumentazio zerbitzuaren funtzionamendua argitu du, non erabiltzaileek zuzenean, dokumentalisten bitartekaritzarik gabe, kontsultatzen dituzten datu-baseak, testuak, irudiak edota grafikoak bilatzeko. Oleagak bere txostenean dokumentazio zentroaren berri ematen digu, dokumentalisten zein erabiltzailearen ikuspegitik.

Segidan, Mauricio Martínek, *Vocento Taldeko* dokumentazio buruak, taldeko egunkarietan erabilitako dokumentazio sistemaren ikuspegi orokorra agertu du. *Vocento*ko dokumentazio zerbitzu zentralak taldeko egunkari guztientzat diren datu-baseak nola elikatzen dituen azaltzen du. Hala eta guztiz ere, bakoitzak bere dokumentazio saila ere badu, tokian tokiko materiala lantzeko. Halaber, metabilatzaile baten bidez erabiltzaileek eta dokumentalistek taldeko datu-base guztietan nola sar daitezkeen erakusten du.

Margari Eizagirre *Berría* egunkariko dokumentazio buruak eta Jon Barandiaran egunkari horretako dokumentalistak, «*Berría* egunkariaren dokumentazio zerbitzua: bi datu-base kazetarien zerbitzura» txostenean, zerbitzuaren funtsaren, egituraren eta datu-basearen berri eman digute, eta informazioa nola indexatzen eta gordetzen duten erakutsi.

Isabel Muñoz eta Itziar Aldazek, *Diario de Noticias* eta *Noticias de Álava* egunkarietako dokumentalistek, *Noticias Taldeko* dokumentazio zerbitzuen funtzionamendua azaldu dute, eta, funtsen digitalizazio prozesuaren berri emanenez, egunkarien orrialdeen, testuen eta argazkien katalogaziorako zer tresna erabiltzen dituzten erakutsi dute.

«La hemeroteca de *EITB*: la orientación al cliente» txostenean, Marta Iturregi *EITBko* hemerotekako koordinatzaileak zerbitzu horren bilakaera agertu du, beren ia 20 urteko historian. Hemerotekak datu-base propio bat

du; 700.000 dokumentu ditu, eta baliabide digital propioen eta kanpokoan bilduma bat kudeatzen du. Erabiltzaileen eskaerei erantzuten die, ekoizpen pertsonalizatuak eskaintzen ditu eta alde zuzenetik zehaztutako bide batzuetatik banatzen du informazioa *EITB Taldeko* edozein enpresatan.

Joxe Rojas Topaguneko Hedabide Saileko sustatzaileak, «Euskarazko tokiko hedabideen balio dokumentalaz» txostenean, Topagunea Euskara Elkarrean Federazioko kide diren euskarazko tokiko 42 hedabideen egoeraren berri eman digu. Komunikabide horiek balio dokumental, historiko eta soziolinguistiko handiko funtsa sortu dute; izan ere, batzuek 20 urteko ibilbidea dute. Funts horrek, baina, tratamendu dokumental egokia jaso ezean, galtzeko arriskua du. Dena den, tratamendu hori lan handiegia da eremu urriko hedabideentzat.

Hurrengo kapituluan, Julen Arrizabalagak, Plazagunekoak, «Hemeroteka Plus, publikazio idatziaren ustiaketa digitala» aurkeztu du. Bi dira Plazagunekoak garatutako aplikazioak prentsa idatziaren jarraipena egiteko: *Hemeroteka Plus* eta *Prentsa Dosierrak*. 2004ko urtarriletik gaur arte argitaratu diren egunkari garrantzitsuenetan irizpide zehatzen bitartez bilaketak egiteko balio du *Hemeroteka Plus*ek. *Prentsa Dosierrak*, berriz, egunero norberaren intereseko zenbait gairen inguruko prentsa dosierrak sortzen ditu automatikoki.

Liburua «Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio zerbitzuen gida»-rekin bukatzen da. Atal hori direktorio bat da, Teresa Agirreazaldegia, Milagros Ronco eta Idoia Camacho Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen ikerketa proiektuaren emaitza. Gidan, helbideak, telefonoak, web orriak, arduradunen izenak eta erabiltzaileen tipologia ageri dira, baita funts dokumentalen deskripzioa ere. Proiektua «Dokumentazioa komunikabideetan» ikasgaiko ikasleen lankidetzarekin osatu da. Orobat, Interneten ere ageri da gidaren bertsio elektronikoa, datuek ahal den zabalkunde handiena izan dezaten. Gida batentzat ezinbesteko baldintza da Internet agertzea, sarea baita bide egokiena informazioa gaurkotua mantentzeko.

Presentación

El libro que presentamos recoge diecinueve aportaciones en torno a la Documentación. Se trata de investigaciones universitarias y contribuciones profesionales que pretenden mostrar la situación del sector de la documentación en las empresas de comunicación del País Vasco. Son ponencias presentadas en las I Jornadas sobre Documentación y Medios de Comunicación, organizadas por el Departamento de Periodismo de la Universidad del País Vasco, y celebradas en el Campus de Bizkaia, en Leioa concretamente, los días 24 y 25 de abril de 2008. A esas ponencias se han sumado otras contribuciones de investigadores y profesionales, de interés. La obra está dirigida a estudiantes en comunicación y documentación, a profesionales de ambos sectores y, también, al público en general que pueda estar interesado en los temas abordados.

La publicación está estructurada en dos partes. La primera parte consta de seis capítulos y recoge investigaciones sobre documentación y recuperación de la información. La segunda parte presenta doce aportaciones de los profesionales del sector y una guía.

El primer capítulo de la obra recoge el análisis de los servicios de documentación de medios de comunicación del País Vasco («Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio-zerbitzuen analisia»), donde las profesoras Teresa Agirreazaldegi, Milagros Ronco e Idoia Camacho, de la Universidad del País Vasco, tras haber recogido, analizado y comparado las características, estructura, tareas, fondos, procesos de digitalización y proyectos de quince servicios de documentación de medios de comunicación, realizan un diagnóstico de la situación de este sector de actividad en el País Vasco.

En la ponencia «Los documentalistas en las redacciones digitales de prensa y televisión: nuevos retos profesionales», los profesores José Alberto García, de la Universidad Miguel Hernández, Josep Lluís Micó y Pere Masip, ambos de la Universidad Ramón Llull, analizan de qué manera la digitalización de las redacciones y el uso de Internet han transformado el trabajo y la práctica profesional de periodistas y documentalistas.

También las profesoras Carmen Peñafiel, de la Universidad del País Vasco, y Nereida López, del IORTV, se interesan por los cambios que está produciendo la digitalización en la televisión. En el capítulo «Documentación digital y gestión de contenidos en la televisión de hoy» describen la informatización de las redacciones y de los procesos de documentación audiovisual, y analizan de qué modo han variado las rutinas laborales de los documentalistas y se ha reforzado su papel en las redacciones.

En el capítulo cuarto, la profesora Milagros Ronco, de la Universidad del País Vasco, parte del conocido programa de la UNESCO Conservación de la Memoria del Mundo para desarrollar la problemática de la conservación de los documentos audiovisuales, lamentando que se dé tan poca importancia social y política a su conservación, que es en definitiva la conservación de una memoria colectiva.

La segunda área de investigación que recoge este libro se interesa por los desarrollos informáticos en torno a la recuperación de información. Así, en el capítulo quinto, los profesores de la Universidad del País Vasco Eneko Agirre e Iñaki Alegria, pertenecientes al Grupo Ixa, presentan un trabajo sobre instrumentos lingüísticos para la recuperación de la información («Tresna linguistikoak informazioa atzitzeko»). Como señalan los autores, las búsquedas de información en las hemerotecas digitales se hacen más difíciles según aumenta el volumen de información acumulada; esta dificultad también se acrecienta porque el usuario, en muchas ocasiones, debe buscar entre documentos en varias lenguas. El trabajo presenta la tecnología de búsqueda y analiza, en este contexto, de qué modo las herramientas lingüísticas facilitan un resultado más cómodo y preciso.

Las búsquedas de información son también el tema del capítulo sexto («Sarean Zer?: Interneteko berriak lotzeko baliabidea»). Los diferentes tipos de informaciones que se difunden a través de Internet no tienen ninguna relación entre sí, no están organizadas. Por eso, cuando queremos acceder a la información desde un punto de vista semántico general, nos resulta imposible. Gregorio Hernández, de Eleka Ingeniería Lingüística, presenta un desarrollo que pretende hacer frente a este problema en el ámbito de los periódicos digitales; su objetivo es relacionar las noticias publicadas por los diferentes diarios.

La segunda parte de la obra son aportaciones de profesionales de los medios que presentan sus servicios de documentación. Se han estructurado en el siguiente orden: radio, televisión y prensa. El libro finaliza con la exposición de un distribuidor de bases de datos de prensa y con una guía de servicios de documentación.

Inicia esta segunda parte la ponencia de Iñigo Ceberio, responsable de la fonoteca de *Euskadi Irratia*, que presenta la digitalización del patrimonio documental de *Euskadi Irratia* («Euskadi Irratiko ondare dokumentalaren digitalizazioa»), donde cuenta cómo se ha llevado a cabo el proceso de digitalización en la emisora. Este proceso comenzó en el año 1996, cuando se decidió archivar todos los documentos en formato digital, tanto de la programación histórica como de la fonoteca musical.

En el octavo capítulo «Catalogación y ambientación del sonido en radio y televisión», Itziar Mendia cuenta su experiencia de 25 años en el departamento de documentación de *Radio Euskadi*. Explica el trabajo de ambientación musical en la radio y describe la estructura y características de las bases de datos. Por último, expone el proyecto de fonoteca digital del *Grupo EITB*.

Jesús Andrés, jefe del departamento de documentación y archivo de *ETB*, presenta «El área de archivo en el proyecto de digitalización de *ETB*», donde narra los cambios que las tecnologías digitales suponen para la documentación y la conservación de programas de televisión. Ofrece una visión general de las etapas del proyecto de digitalización de *Euskal Telebista* y muestra ejemplos de nuevas herramientas para la catalogación y gestión integral de los contenidos audiovisuales.

Koldo Lizarralde, subdirector de ingeniería de *ETB*, en su exposición «*Media Asset Management (MAM)* y plataformas de digitalización de contenidos en *ETB*», ayuda a conocer mejor este proceso. La ponencia explica qué es el MAM (un software para la gestión de contenidos digitales), qué son estos contenidos digitales, así como la edición, publicación y archivo de los mismos; haciendo una presentación del proceso de digitalización de contenidos en *Euskal Telebista*.

Sonia Guardado, documentalista de la Agencia de noticias *Atlas del País Vasco*, explica las características de esta agencia, los fondos documentales y el trabajo de su servicio de documentación.

En lo que se refiere a la prensa escrita, Jesús Oleaga, jefe de documentación del diario *El Correo*, expone el funcionamiento del centro de documentación de este diario, donde los usuarios acceden a las bases de datos para encontrar textos, imágenes o gráficos, sin intermediación de los documentalistas. La ponencia muestra el centro de documentación tanto desde el punto de vista del documentalista como del usuario.

A continuación, Mauricio Martín, jefe de documentación del *Grupo Vocento*, ofrece una visión general del funcionamiento del sistema de documentación utilizado en las cabeceras del grupo. Explica cómo el servicio central de documentación de *Vocento* alimenta las bases de datos comunes a todas las cabeceras, mientras que cada una tiene su propio departamento de documentación para trabajar con el material local. Muestra cómo un metabuscador proporciona a usuarios y documentalistas el acceso a todas las bases de datos del grupo.

Margari Eizagirre, responsable de documentación del diario *Berria*, y Jon Barandiaran, documentalista de dicho diario, presentan en su ponencia («*Berria* egunkariaren dokumentazio zerbitzua: bi datu-base kazetarien zerbitzura») el servicio de documentación del periódico *Berria*, sus fondos, la estructura de sus bases de datos y el modo de indizar y conservar la información.

Isabel Muñoz e Itziar Aldaz, documentalistas de *Diario de Noticias* y de *Noticias de Álava* respectivamente, explican el funcionamiento de los servicios de documentación del *Grupo Noticias*, enseñan las herramientas que utilizan para la catalogación de fotografías, textos y páginas de los diarios del grupo y explican el proceso de digitalización de los fondos.

En su ponencia «La hemeroteca de *EITB*: la orientación al cliente» Marta Iturregi, coordinadora de hemeroteca de *EITB*, explica la evolución de este servicio en sus casi 20 años de historia. La hemeroteca mantiene una base de datos propia con 700.000 documentos y gestiona una colección de recursos digitales propios y externos, directamente accesibles a sus usuarios; también responde a las demandas de los usuarios, ofrece productos personalizados y distribuye la información de la que dispone a través de unos canales predefinidos, en cualquiera de las empresas del *Grupo EITB*.

Joxe Rojas, promotor del departamento de medios de comunicación de *Topagunea*, explica el valor documental de los medios de comunicación locales («Euskarazko tokiko hedabideen balio dokumentalaz») y llama la atención sobre la situación que viven los 42 medios de comunicación locales que forman parte de la Federación de Asociaciones de Euskara Topagunea. Estos medios, algunos con una trayectoria de 20 años, han ido creando un fondo de gran valor documental, histórico y sociolingüístico, que corre el riesgo de perderse si no recibe un tratamiento documental adecuado. Se trata, sin embargo, de un trabajo de gran envergadura, que queda fuera del alcance de este tipo de medios, que no cuentan con recursos para llevarlo a cabo.

En el siguiente capítulo Julen Arrizabalaga, de Plazagunea, presenta *Hemeroteka Plus*, un sistema de gestión digital de las publicaciones escritas («Hemeroteka Plus, publikazio idatzien ustiaketa digitala»). Las aplicaciones *Hemeroteka Plus* y *Prentsa Dosierrak* son dos sistemas desarrollados por Plazagunea para realizar el seguimiento de la prensa escrita. *Hemeroteka Plus* sirve para realizar búsquedas con criterios concretos en los periódicos más relevantes, publicados desde enero de 2004 hasta la actualidad. *Prentsa Dosierrak*, en cambio, crea automáticamente dosieres de prensa sobre diferentes temas de interés del usuario.

La obra termina con la «Guía de servicios de documentación de medios de comunicación del País Vasco». Se trata de un directorio fruto del proyecto de investigación de las profesoras Teresa Agirreazaldegi, Milagros Ronco e Idoia Camacho, de la Universidad del País Vasco. Ofrece dirección, teléfono, página web, nombres de los responsables y tipología de usuarios de los servicios de documentación, así como la descripción de los fondos. Todo esto en forma de textos, fotos, sonidos y vídeos. El proyecto ha contado con la colaboración de los alumnos y alumnas de la asignatura «Documentación en Medios de Comunicación». La versión electrónica de esta guía está en Internet, de forma que los datos puedan conocer una más amplia difusión; además, la red es el modo más idóneo para mantener actualizadas las informaciones, condición indispensable en una guía.

1. Atala
IKERKETAK

1.^a Parte
INVESTIGACIONES

I

Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio zerbitzuen analisia

Teresa Agirreazaldeg, M.^a Milagros Ronco eta Idoia Camacho

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak
Profesoras de la Universidad del País Vasco

Laburpena: Komunikabideek dokumentazio zerbitzuak sortu dituzte euren atzera begirako informazioa eta gainontzeko kalitatezko informazio-iturriak erraz eskuratu eta kontsultatu ahal izateko.

Euskal Herriko komunikabideetan dokumentazio zerbitzu horien ezarpena ezagutzea izan da ikerketa honen helburua. Informazioak jasotzeko galdetegi bat erabili dugu eta, guztira, 15 komunikabideren datuak aztertuak izan dira (kazeta, irrati, telebista, agentzia eta talde multimedia). Dokumentazio zerbitzuen ezaugarriak, egitura, lanak, funtsak, digitalizazio prozesuak eta egitasmoak aztertu eta alderatu ditugu, analisi horren emaitza nagusiak aurkeztuz.

Resumen: Los medios de comunicación se han ido dotando de servicios de documentación que les posibiliten acceder fácilmente a su información retrospectiva y consultar fuentes de información de calidad.

Esta investigación tiene como objetivo conocer la implantación real de estos servicios de documentación en los medios de comunicación del País Vasco. Se han examinado un total de 15 servicios de diferentes tipos de medios (prensa, radio, televisión, agencias y grupos multimedia), empleándose un cuestionario para la recogida de datos. A continuación se procede a analizar y comparar las características, estructura, tareas, fondos, procesos de digitalización y proyectos de los diferentes servicios de documentación; presentándose las principales conclusiones del análisis.

1. SARRERA

Komunikabideek gaurkotasunezko informazioa jaso eta osatu egingen dute, herritarrei zenbait modu eta bidetatik eskaintzeko. Horretarako, ezinbestekoa zaie atzera begirako informazioa eskura eta kalitateko informazio iturrietara sarrera izatea. Lehiakortasun informatiboa gero eta handiagoa denez, kanalen eta emisio orduak ugartu direnez eta komunikazio enpresak dibertsifikatu direnez, edukien kudeaketak eraginkorra izan behar du. Horretarako, Euskal Herriko komunikabideek dokumentazio zerbitzuak eratuz joan dira.

Galdetegi batean bildutako datuen bitartez, dokumentazio zerbitzu horien funtsak, egitura, lanak, ezaugarriak, digitalizazioa eta proiektuak aztertu ditugu, Euskal Herrian dokumentazio zerbitzu horien benetako zabalkundea eta egiten duten lana aurkezteko helburuarekin.

Gure azterlanean, hasieran Euskal Herrian dauden komunikabideekin jarri ginen harremanetan, dokumentazio zerbitzua zeintzuek daukaten jakiteko asmoz. Horretarako, dokumentazioko jardunean gutxienez pertsona bat egotea jarri genuen baldintzatzat.

Sudouest, El País, El Mundo egunkariak eta *SER* eta *COPE* irrati kateak ez daukate dokumentazio zerbitzurik Euskal Herrian. Zerbitzu hori euren egoitza nagusietan dituzte, eta berriemaileek sarearen bidez kontsultatzen dituzte datu-baseak.

Noticias de Gipuzkoa egunkariak ere ez dauka dokumentazio zerbitzu propiorik, eta *Noticias Taldeko* gainontzeko egunkarietako dokumentazio zerbitzuez baliatzen da. Halaber, *Gara, Le Journal du Pays Basque, Goiena* taldea, *Herri Irratia, Antena 3* eta beste hedabide batzuek ere, batik bat lokalek, ez dute dokumentazio zerbitzurik.

Vocento taldeak bere irrati eta telebista lokalen dokumentazioa antolatzekeo proiektua du. *Garan* argazkilariek sartzen dituzte argazkiak eta euren datuak sisteman, eta testurako, Phrasea sistema informatikoa erabiltzen dute, dokumentalisten bitartekaritzarik gabe. *Antena 3* telebistaren produkzio zentroak dokumentalista bat izan zuen hasieran, baina azken urteetan ez dago lanpostu hori. Irratietan fonoteka musikala ezinbestekoa da, baina gerta liteke horren antolamenduaz arduratzen den pertsonarik ez egotea.

2. DOKUMENTAZIO ZERBITZUEN EZAUGARRIAK

2.1. Aztertutako dokumentazio zerbitzuak

30 komunikabiderekkin jarri ginen harremanetan, eta horietatik 19k baieztatu zuten dokumentazio zerbitzua daukatela, eta zerbitzuko arduradunaren edota kontaktatzeko pertsonaren datuak ere eman zizkiguten. Pertsona horiei 2007ko apirilean aldeztu aurretik osatutako galdetegi bat bidali genien. Azkenean, 13 erantzun jaso ditugu, 15 komunikabideren informazioa emanez. *EITB* taldeko irratiek, hau da, *Radio Euskadi, Euskadi Irratia* eta *Radio Vitoria* irratiek galdetegi bakar batean erantzun baitzuten.

Aزتتutako erantzunak honako komunikabide hauenak dira:

- *Atlas País Vasco*
- *Berria*
- *Bizkaia Irratia*
- *Deia*
- *Diario de Navarra*

- *Diario de Noticias*
- *El Correo Español-El Pueblo Vasco*
- *El Diario Vasco*
- *ETB-Euskal Telebista*
- *Eusko Irratia SA [EITB] (Radio Euskadi, Euskadi Irratia eta Radio Vitoria)*
- *Noticias de Álava*
- *TVE*
- *Vocento*

Komunikabideen tipologiaren arabera, honela geratzen dira banatuta: bi telebista; sei egunkari; bi multimedia talde; berri agentzia bat; irrati bat, eta irrati talde bat, zeinek hiru irrati hartzen dituen.

Dokumentazio zerbitzu kopuru txikia da, kontuan hartzen badugu zenbat komunikabidek dituzten egoitza edota delegazioak Euskal Herrian.

2.2. Dokumentazio zerbitzuak zenbakietan

Aztertutako komunikabideen hedapen eremua hurrengo hau da:

- Araba: *Noticias de Álava*.
- Bizkaia: *Deia* eta *Bizkaia Irratia*.
- Gipuzkoa: *El Diario Vasco*.
- Nafarroa: *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias*.
- Euskal Herria: *Berria*, *ETB-Euskal Telebista* eta *Eusko Irratia SA* (EAE eta inguruak —Iparraldea, Nafarroa...).
- Espainia: *TVE* eta *Atlas País Vasco*.
- Besteak: *El Correo Español-El Pueblo Vasco* (EAEz gain, Errioxa, Burgos eta Kantabria) eta *Vocento* (zenbait komunikabide ditu autonomia erkidego batzuetan, eta parte hartzen du Argentinako bi egunkaritan: *La Voz del Interior* eta *Los Andesen*).

Dokumentazio zerbitzuak herri hauetan dituzte:

- Andoain (Gipuzkoa): *Berria*.
- Bilbo: *Atlas País Vasco*, *Bizkaia Irratia*, *Deia*, *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, *ETB-Euskal Telebista*, *Radio Euskadi*, *TVE* eta *Vocento*.
- Donostia: *El Diario Vasco* eta *Euskadi Irratia*.
- Iruñea: *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias*.
- Gasteiz: *Radio Vitoria* eta *Noticias de Álava*.

Komunikabideek euren hedapen eremuaren hiriburuan dute egoitza, *Berriak* izan ezik. Egunkari hori Martin Ugalde kultur parkean dago, Andoainen, Donostiatik gertu. *Berriak* zein *Euskadi Irratiak*, biak komunikabide euskaldunak, euskaldun kopuru handien duen lurraldean dute egoitza. Bilbon, hiriburu populatuenean, biltzen da komunikabide kopuru handiena eta askotarikoena.

TVE, ETB-Euskal Telebista eta *Eusko Irratia* komunikabide publikoak dira; gainontzeko hamarrak, ordea, pribatuak.

Enpresa guztiek dute webgunea, baina dokumentazio zerbitzu batek ere ez du webgune propiorik. Bestalde, posible da arduradunekin posta elektronikoren bidez kontaktatzea.

Hona hemen komunikabideek dokumentazio zerbitzua sortu zuten urtea:

1934: *Radio Vitoria*

1973: *RTVE*

1979: *Diario de Navarra*

1982: *Euskadi Irratia* eta *Radio Euskadi*

1985: *ETB-Euskal Telebista*

1987: *El Correo Español-El Pueblo Vasco* (datu basea sortu zuten urtea, baina lehenago bazeukaten artxibo bat)

1990: *Bizkaia Irratia*

1991: *El Diario Vasco*

1994: *Noticias de Navarra*

1996: *Vocento*

1997: *Deia*

1998: *Atlas País Vasco*

2003: *Berria*

2004: *Noticias de Álava*

Aztertutako dokumentazio zerbitzuek hurrengo mendekotasun hierarkikoa dute enpresaren egituraren barruan:

- Komunikabide Inprimatuen Zuzendaritza Orokorra: *Vocento*.
- Zuzendaria: *Radio Vitoria, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Bizkaia Irratia* eta *Deia*.
- Produkzioko zuzendaria: *ETB-Euskal Telebista*.
- Erredakzioa: *Atlas País Vasco, Noticias de Álava, El Diario Vasco, RTVE* (Albiste Zerbitzuak), *El Correo Español-El Pueblo Vasco* (Erredakzioko Zuzendaritzaondokoa), *Diario de Navarra* (Nafarroako Erredakzioko Zuzendaritza) eta *Diario de Noticias*.
- Zerbitzuak: *Berria*.

Prensa idatzian, dokumentazio zerbitzuak erredakzio barruan daude sarri. *RTVE*koa ere horrela dago, eta albiste zerbitzuen mendekotasun hierarkikoa du. *RTVE*ek zerbitzu osagarri bat du Bilbon, zeinen funtzio nagusia, bakarra ez esateagatik, Bilbon egoitza duen Euskal Herriko lurraldeko erredakzioaren saio informatiboen produkzioan laguntzea den. Baina zerbitzu nagusia, enpresako eremu guztiak estaltzen dituena, Madrilen dago; zehazki, programa informatiboen dokumentazio zerbitzua (Torrespaña) eta *RTVE*ko dokumentazio zentroa (Prado del Reyn).

2.3. Dokumentazio zerbitzuen erabiltzaileak

Euskal Herriko komunikabideen dokumentazio zerbitzuak enpresa barrurako dira, eta komunikabideko bertako langileek erabiltzen dituzte, kazetari moduan identifikatuak sarritan.

Noticias de Álava egunkariko eremu guztietako langileek erabiltzen dute dokumentazio zerbitzua: erredakzio, publizitate, marketin eta administraziokoek. *Diario de Navarra*, langile guztiek erabiltzen dute, batik bat Información taldeko erredakziokoek, baita beste arlotakoek, batez ere publizitate eta marketinekoek. *Vocenton*, erredaktoreek, argazkilariek, infografoek, diseinatzaileek, dokumentalistek, publizistek, administraziokoek eta bestek erabiltzen dute. *Berrian* kazetariak erabiltzen dute dokumentazio zerbitzua, baita *Bizkaia Irratian* eta *Atlas País Vascon* ere.

Enpresako erabiltzaileek ez daukate inolako eragozpenik dokumentazio zerbitzuak kontsultatzeko; kanpokoei, ordea, ez zaie baimentzen edota zerbait ezohikoa da (*Noticias de Álava*, *El Diario Vasco*, *Antena 3 TV País Vasco* eta *RTVE*). *Berria* egunkarian izan ezik, non aukera hori eskaintzen dituzten «beste zerbitzuen» artean daukaten.

Noticias de Álava egunkariak ez die artxiboko sarrera baimentzen kanpoko erabiltzaileei, baina enpresatik kanpoko erabiltzaileen kontsultei kasu egiten diete, «eskatutako informazioa aurkitzea erraza bada eta azkar egin baldin badaiteke». *RTVE*n kanpoko erabiltzaileek posible dute dokumentazioa eskuratzea, aldez aurretik baimena lortu badute. *Vocenton* ez zaie erantzuten kanpoko eskaerei.

EITBn dokumentazio zerbitzua taldeko langileentzat bakarrik da. Mailegu zerbitzua ere barrurako da bakarrik, eta kanpoko jendeari zuzenean ez zaio zerbitzurik ematen; kanpoko eskaerak salmenta departamentutik bideratzen dira. Kanpoko produkzio etxeetako langileek ahal dute artxiboko materiala eskuratu, aldez aurretik baimena baldin badute.

2.4. Kontsulten kopurua

Aztertutako dokumentazio zerbitzu gehienek eskaerak ez dituzte ez kontabilizatzen ezta erregistratzen ere, eta, horren ondorioz, ez dute analizatzen erabiltzaileek egiten dizkieten kontsultak. Esan dezagun kontsultak honako modu hauetan egin daitezkeela: datu baseetan eta dokumentuetan (zentzu hertsian) zuzenean sartuz edo dokumentalisten eta maileguen bitartez.

Vocentotik honela azaldu dute egoera: «Erabiltzaile gehienek beren kabuz egiten dituzte beraien kontsultak eta dokumentuen deskargak; dokumentazio zerbitzura galdera konplexuak edota ordainduzko kanpoko zerbitzuetara egin behar direnak iristen dira soilik eta oso gutxi izaten dira». Azaldu digutenez, dokumentazio zerbitzu horretan erabiltzaileek beraiek egindako kontsultak milaka dira egunero, eta erabiltzaile kopurua 2.000 eta 3.000 artekoa dela uste dute.

Hiru dokumentazio zerbitzuek bakarrik eskaini dituzte eskakizunen datuak: *Berriak*, *ETB-Euskal Telebistak* eta *Eusko Irratiak*.

Berria-n sistema batek erabiltzaile kopurua eta zer dokumentu mota kontsultatzen den jasotzen ditu, hurrengo datu hauek erakutsiz: Hemeroteka —Azala, *Egunero*, Gehigarriak, *Berria* eta *Hemeroteka Plus*—, Argazkiak eta Artxiboa. 2007ko urtarrileko datuak hauek izan ziren:

— Hemeroteka:

- Azala: 2.170 kontsulta (batez beste, 70 egunean).
- *Egunero*: 5 kontsulta.
- Gehigarriak: 140 kontsulta.
- *Berria*: 1.775 kontsulta.
- *Hemeroteka Plus*: 163 kontsulta.

— Argazkiak: 11.038 (batez beste, 356 kontsulta egunean).

— Artxiboa: 498 (batez beste, 16 kontsulta egunean).

ETB-Euskal Telebistak egindako maileguak erregistratzen ditu; eta, adibidez, 2006an 165.000 zinta mailegatu zituzten; horietatik %40 saioak emititzeko mailegatu ziren.

Bestalde, *EITB* taldeko irratiek urtean 10.000 kontsulta jasotzen dituztela adierazi zuten.

2.5. Dokumentalisten ezaugarriak

Ikus ditzagun orain zeintzuk diren komunikabideetako dokumentazio zerbitzuetan lan egiten dutenen pertsonen ezaugarriak.

Ikertutako dokumentazio zerbitzuetan 58 pertsona ari dira lanean:

- Pertsona 1: *Deia*, *Noticias de Álava* eta *Bizkaia Irratia*.
- 2 pertsona: *Atlas País Vasco* eta baita *Eusko Irratia* taldeko irratia bakoitzean ere (*Radio Vitoria*, *Radio Euskadi* eta *Euskadi Irratia*).
- 3 pertsona: *RTVE*, *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, *Berria*, *Vocento* eta *Diario de Noticias*.
- 5 pertsona: *El Diario Vasco*.
- 6 pertsona: *Diario de Navarra* eta *Eusko Irratia*.
- 21 pertsona: *ETB-Euskal Telebista*.

Espero zitekeen moduan, dokumentazio zerbitzu handiena *ETB-Euskal Telebistak* du, egoitza eta produkzio zentroak Euskal Herrian dituen telebista bakarrak. Gainontzeko dokumentazio zerbitzuetan kopurua bat eta sei pertsonen artekoa da. Beharbada, zenbaki horiek beren zentzu osoa har dezaten, eta interpretazioa egokiagoa izan dadin, komunikabideko langile kopurua ere kontuan hartu beharko genuke, batez ere erredakziokoa.

Sexuaren araberako banaketa, honako hau da: %68,96 emakumeak dira (40) eta %31,03 gizonak (18). Hortaz, dokumentazio zerbitzuetako langileak bi herenak emakumeak dira.

Pertsona horien heziketa maila honako hau da:

- Lizentziadunak: 43
- Diplomadunak: 2
- Teknikari espezialistak (LH-2): 3
- Teknikari laguntzaileak (LH-1): 8
- Batxilergoa: 1
- Besteak: 1

Esan dezakegu dokumentazio zerbitzuetako langileak hezkuntza maila altukoak direla: %77,58 unibertsitarioak dira, eta horietatik %74,13 lizentziadunak.

Enpresetan pertsona horiek betetzen dituzten lanpostuak eta lan kategoriak honako hauek dira:

- Dokumentalista: 35
- Dokumentalista laguntzailea: 13
- Artxibozaina: 1
- Kazetaria: 5
- Informatikaria (analista/programatzailea): 1
- Administratiboa: 3

Dokumentalista da gailentzen den kategoria (%60,34); gehitzen badiogu artxibozain kategoria, dokumentalista-artxibozain tandemaren ehunekoa %62,06ra iristen da. Dokumentalista laguntzailea da bigarrena (%22,41), eta kazetaria hirugarrena (%8,62).

Historikoki, egunkarietan ohikoa izan da erredakziotik etorrita eta kazetari lanerako kontratatutako pertsonak artxiboan bukatzea lanean. Ditugun datuek, ordea, egoera hori zeharo gaindituta dagoela erakusten dute. Gure ikerketaren arabera, gaur egun komunikazio enpresetako zuzendaritzak dokumentazio zerbitzua lan espezializatu moduan ikusten du, erredakzioko lanetik bereizita, eta ohartu dira lan horrek zeregin eta ezaugarri jakin batzuk dituela. Esan dezagun, baina, lan kategoria eta heziketa maila jaso ditugula; ez, ordea, zein lizentziaturatik datozen dokumentalista eta artxibozain horiek.

Bestalde, aurrekoan bezala, sektorearen lan eta gizarte egoeraz jabetzeko, datu hauek datu ekonomikoekin (soldatak, gehigarriak...) eta lan baldintzekin osatu beharko liriateke; eta enpresa bereko beste lantalde batzuen datuekin edota beste alorretan diharduten dokumentazioko profesionalekin.

3. FUNTSAK ETA DOKUMENTUEN KUDEAKETA

3.1. Egunkariak

3.1.1. *Berria*

Prensa artxiboaren datuak:

Prensa artxiboaren funtsak *Berria*, *Egunero* (2003ko otsailaren 21etik ekainaren 20ra) eta *Hitzak* argitalpenek osatzen dute. *Euskaldunon Egunkaria*-ren bilduma koadernatua ere badute, 1990etik 2003ko otsailera artekoa. Horrez gain, 1.300 liburu inguruko liburutegi bat daukate, eta aldizkariak jasotzen eta gordetzen dituzte.

Testu zein argazkien datu baseak mysql programarekin eginga daude, Perl eta PHP CGI lengoaietan garatuak. Testu indexatzailea switch da.

Erabiltzaileek barruko sarearen bitartez kontsultatzen dituzte datu baseak. Dokumentuak euskaraz daude, baita haien analisisa ere. Sailkapen Hamartar Unibertsala erabiltzen da liburuak ordenatzeko, eta IPTC-*Subject NewsCodes* (*International Press Telecommunications Council*) kazeta testuak eta argazkien analisirako, biak ere euskaratuak eta beren beharretara egokituak.

Argazki bildumaren datuak:

Argazki funtsak *Argazki Press* eta *Efe* agentzietatik eta *Le Journal* egunkaririk datoz, edota bertako kazetariak lortutakoak edo jendeak emandakoak izaten dira. 1.200.000 argazki digital eta 50.000 inguru paperezko daukate gordeta. Argazkien datuak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez daude.

Beste funts eta zerbitzu batzuk:

Kanpoko eskaerak artatzen dituzte.

Etorkizunerako egitasmoak:

Audioak ere artxibatzea aurreikusita daukate. Horretarako, testuekin erabiliko moduko fitxa bat osatu dute. Kazetariak MP3 formatura pasatuko dute audioa, eta fitxako hainbat eremu beteko dituzte. Horren ondoren, dokumentalistek analizatu eta gordeko dute audioa, testuekin egiten duten legez.

3.1.2. *El Correo Español-El Pueblo Vasco*

Prensa artxiboaren datuak:

Komunikabide idatzietan argitaratutakoa gordetzen dute, eta 1.340.000 artikulua baino gehiago daude, paperean, xlm-n eta pdf-n. Argitalpen osoa, ha-

sieratik, pdf-n digitalizatzen ari dira, eta bi milioi pdf-tara helduko direla uste dute. Bilduma koadernatua ere badute. Dena digitalizatua dago, baimendutako edozein erabiltzailek Intranetaren bidez sarean kontsultatzeko moduan. Albisteak berreskuratzeko lengoia askea da. Dokumentuak gaztelaniaz daude eta, bakan batzuk, euskaraz.

Argazki bildumaren datuak:

Etxeko argazkilariek eta agentzia lokalek egindako argazki hautatuak gordetzen dira; gutxi gorabehera 390.000 dira, eta batik bat, tokikoak dira. Testuekin gertatzen den legez, dena dago digitalizatua eta sarean, baimendutako edozein erabiltzailearen esku.

Bideotekaren datuak:

Oso proiektu berria da. Funtsa 400-500 bideok osatzen dute, *Bilbovisión* telebistatik eratorritakoak. Fitxategi digitalak dira, nahiz eta Access-eko antzinako datu base bat mantentzen duten. Gaiak oso lokalak dira, batik bat Bilborekin lotuak. Sarean bereizmen gutxiko bideoak eta datu basea daude, Intraneten bidez eskura daitezke. Bereizmen handia, ordea, saretik kanpo dago. Bideoak eta horien gaineko dokumentazio lana gaztelaniaz daude.

Beste funts eta zerbitzu batzuk:

Aldizkariak eta liburuak ere gordetzen dituzte, liburutegi txiki batean. Kazetariak *Vocento Taldeko* gainontzeko datu baseetan sartzeko aukera dute. Baita kanpoko beste hainbat datu baseetan ere.

Etorkizunerako egitasmoak:

Hurrengo egitasmo hauek dituzte: hemerotekako digitalizazioa bukatu; *Bilbovisión* telebistako katalogazioa arautu eta *Álava 7* telebistarekin hasi; gehigarri komertzialen sarrera datu baseetan sistematizatu; oro har, egunkariko egunerokoa bermatu, eta gero irratiei buruz pentsatu.

3.1.3. *Deia*

Prensa artxiboaren datuak:

Deia egunkariko dokumentazio zerbitzuaren lana komunikabideak berak ekoiztutako eta publikatutako informazioan oinarritzen da. Bertako dokumentalistak honela laburbildu du lan hori: «Egunero argitaratzen diren albisteak, orrialdeak eta argazkiak gorde eta eskaini». Gutxi gorabehera, 80 orrialde, 100 argazki eta 300 albiste izaten dira tratatu beharrekoak.

2004. urtetik aurrera argitaratutakoa digitalizatua dago, eta pixkanaka-pixkanaka aurreko informazioa ere digitalizatzen ari dira. Datu baseak osatzeko, Arcano programa erabiltzen dute; teletipoak kudeatzeko, berriz, Millenium. Erabiltzaileek zuzenean kontsultatzen dituzte datu baseak Arcano Visual programaren bitartez.

Etorkizunerako egitasmoak:

Paperean eta negatiboan dauden dokumentuak digitalizatu eta artxibo berean eduki.

3.1.4. *Diario de Navarra*

Prensa artxiboaren datuak:

Prensa artxiboaren oinarria hauxe da: 1903. urtetik gaur arteko heme-roteka; 1979tik 1998ra bitartean eraturako dosierren ondarea; eta beste komunikabideetan plazaratutako albisteen hautaketa. 1979tik 1998ra bitartean, paperean, dosierak sailkapen alfanumeriko baten arabera ordenaturik, eta 1999. urtetik aurrera, era digitalean. Informazio orokorreko egunkari bati dagozkion funtsak ditu, eta Nafarroako eremu geografikoarekin zerikusia duen informazio guztiari tratamendu osoa ematen zaio. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ekoizten eta Nafarroa Garaian ordezkariak edota argitaraldiak dituzten egunkari guztiei ere segimendu zehatza egiten zaie. Gainontzeko elkar-tekoek ez dute horrelako segimendurik. Espainiako egunkarietan argitaratutako hainbat artikulu ere dokumentatzen dira.

Langile bakoitzak Intraneten bitartez ondare guztia du eskura, idatziak zein irudiak. Ondarea garatuz eta landuz joan den heinean, formatu digitalak ere aldatuz joan dira; une hauetan, albisteetarako txt, orrialdeetarako pdf eta irudietarako jpg formatuak erabiltzen dituzte. Oracle, Intermedia eta SQL programak erabiltzen dituzte datu baseak osatzeko.

Argazki bildumaren datuak:

Argazkien artxiboan XX. mendearen hasieratik aurrerako irudiak agertzen dira, baina 1922. urtera arteko irudiak nahiko urriak direla esan behar da, urte horretatik aurrera sarriago publikatuko dira. 80ko hamarkadara arte erabilitako euskarriak papera eta negatiboak dira. Hortik aurrera, filmak eta sistema digitala, biak, eta 2005. urtetik aurrera era digitalean soilik ekoizten da.

Hala ere, 1979. urtetik aurrerako irudi guztiak digitalizatuta daude jada; milioi bat irudi inguru dira. Filmetan edo positibatutako paperean gordeta dagoen artxibo historikoa ez dago zenbatua, baina oso garrantzitsua da. Ondarea Nafarroa Garaiko eremu geografikoari dagokio batik bat, eta gehienen datuak gaztelaniaz daude. Espainiako eta Espainiatik kanpoko agentzien irudiak ere badaude, batez ere 1950etik 1970era eta 1982tik 1998ra artekoak.

Irudiak prentsarako direnez, jpg formatuan ez dute mega bat baino gehiago betetzen. Normalean, digitalizazioa 300 dpi-ko bereizmenean eta neurri originalak errespetatuz egin ohi dituzte; irudia txikia bada, 1.200eko neurrira irits daitezke. Batzuetan kalitateko publikazio eta erakusketetarako eskaneatu bereziak ere egin izan dituzte.

3.1.5. *Diario de Noticias*

Prensa artxiboaren datuak:

Artikuluak modu automatikoan sartzen dira datu basean, eta maketazioak aurretik finkatutako eremuetan banatzen dira. Datu basean 1995etik 1998ra bitarteko testuak gordetzen dira. Arazo teknikoak eta sistemaren aldaketa zirela medio, 1998tik 2004ra bitarteko testuak eskuz artxibatuta daude, paperean eta gaiaren arabera. 2004tik aurrera publikazio osoko pdf-ak gordetzen dira, gehigarriak barne. Horretaz aparte, *Diario de Noticias*en bi bilduma koadernatu eta *Diario de Navarra* egunkariaren bat dauzkate. Urteko egunkariak paperean multzoka pilatuta ere gordetzen dira, kontsultatzeko eta fotokopiatzeko orduan erosoa delako.

Esan dugunez, egunkarian argitaratutako guztia artxibatzen da, eta, horretarako, Mediagrid programa erabiltzen dute. Datu basea biblioteketan banatuta dago:

- Testuak (artikuluak, hain zuzen).
- Dokumentatzeke dauden argazkiak.
- Historikoa (argazki digital eta digitalizatuen artxibo historikoa).
- Pdf-ak (formatu horretan dauden orrialdeak).
- Liburuak (kontserbatutako liburuen fitxa katalogafikoak).
- Kontaktuak (negatiboan gordetzen diren argazkien fitxak).

Egunkariko langileek barneko sarearen bitartez kontsultatzen dute datu basea eta jasotzen dituzte dokumentuak; gainontzeko erabiltzaileek urte bateko hemeroteka kontsulta dezakete Interneten bidez.

Diario de Álavan bezala, *Diario de Noticias*en ere, nahiz eta hiztegi kontrolatua erabiltzeko aukera egon (dokumentalistek osatutako deskriptore ez-hierarkikoak), denbora faltagatik artikuluak ez dira behar den moduan katalogatzen, eta, horregatik, bilaketak testu librean egin behar dira.

Argazki bildumaren datuak:

Gaur egun artxibatzen diren argazki guztiak digitalak dira, eta datu base berean gordetzen dira. 2001etik aurrera argitaratutako argazki guztiek eta argitaratu gabeko hautatu batzuek artxibo historikoa osatzen dute: 575.000 argazkik, hain zuzen, *Noticias Taldeko* egunkarietan. Urte horretakoak baino lehenagokoak (1994tik 2002ra) negatiboetan daude, eta artxibagailuetan gordetzen dira, zenbaki bidez ordenatuta. Argazki horiek berreskuratzeko,

datu basean egin behar da bilaketa, non kontaktuen deskripzioa jasotzen duten 154.227 erregistro dauden.

Egunkariak argitaratutako guztia gordetzen da. Analisisirako hiztegi kontrolatu bat garatu da, *keywords* edo deskriptore ez-hierarkikoetan oinarritua. Analisi eta kontsultarako hizkuntza gaztelania da.

Beste funts eta zerbitzu batzuk:

Teknologia honen osagai nagusiak hiru dira: robota, sarea miatzeko dokumentuen bila; indexatzailea dokumentuetatik indizeak gehitzeko sistema; eta bilatzaile bera, galdera baten aurrean indizeak kontsultatu eta emaitzak (eta dokumentuen estekak) itzultzen dituen. Informazio kopurua erraldoia da, eta horrek hardware eta komunikazioen aldetik konplexutasuna handitzen du izugarri.

Internet osoaren eskalan lan egin beharrean Intranetean aritzean azken arazo hori desagertzen da, baina teknologia antzekoa da. Dena den ondoren aztertuko dugu gaia, hemerrotekez eta liburutegi digitalez arituko garenean.

Emaitzak ebaluatzerakoan bi neurri erabiltzen dira doitasuna (*precision*) eta estaldura (*recall*) [2]. Lehena eskuratutako dokumentuen esanguratasuna neurtzen du, hau da, eskuratutako dokumentuen artean zenbat dira esanguratsu edo interesgarri bilaketa-beharrerako. Estaldura, berriz, sistemaren eraginkortasuna neurtzen du, hau da, zeuden dokumentu esanguratsuen artean zenbat itzuli diren. Doitasuna kalkulatzeko erraza da, dokumentalista batek eskuratutako dokumentuak aztertu eta esanguratsuak zeintzuk diren markatuta. Estaldura neurtzea oso zaila da, bildumaren dokumentu guztiak begiratu beharko lirakeelako, eta orokorrean modu erlatiboan neurtzen da, galdera beraren aurrean sistema batek beste batek baino dokumentu esanguratsu gehiago edo gutxiago itzultzen duenez egiaztatuz.

Bilaketa-sistemetan gertatzen diren egoera korapilatsuak honako hauek dira: galdera baten aurrean dokumenturik ez aurkitzea, edo erantzun gehiegi agertzea. Lehena konpontzeko estaldura handitu behar da, semantika erabiliz adibidez (ikus geroago). Bigarrenari aurre egiteko emaitzak ordena egokian aurkeztea da gakoa, baina galderak fintzen laguntzeko tresnak ere badaude.

Bilaketaren arloan azken urteetan aurrerakuntza nabarmenak egon dira. Gure gaiarekin lotuta honako hauek azpimarra daitezke:

- CLIR (*Cross-Lingual IR*): bilaketa eleanitzean galderak eta dokumentuak hainbat hizkuntzatan egon daitezke eta bilatzailea gai izan behar da hizkuntza desberdinetako dokumentuak erlazionatzeko [6]. Hiztegi bat nahikoa izan daiteke horretarako, baina itzulpen automatikoa gero eta gehiago erabiltzen da.
- QA (*Question Answering*): dokumentuak bilatu beharrean erantzun zehatzak lortu nahi dira sistema hauetan (nork, non, zergatik...). Helburu horrekin dokumentuen prozesaketa sakonagoa behar da, hizkuntza-teknologiak ezinbesteko tresna izanik. Emaitzak oraindik ez dira oso ikusgarriak baina ikerketa handia egiten da arlo honetan.
- Bilaketa multimodala: digitalizazioa dela-eta, dokumentuak bilatzeaz gain, argazkiak, irratiko edo telebista/bideoko programak bila daitezke.

Bilaketa-sistema hauek metadatueta (fitxa dokumentala) oinarri daitezke edo bestelako tekniketan (inguruko testua argazkietarako, ahots-testu bihurketa, etab.); eta askotan metodo konbinatuak dira egokienak. Gai hau artikulu honen esparrutik kanpo geratzen da.

4. BILAKETA HEMEROTEKETAN ETA LIBURUTEGI DIGITALETAN

Interneteko bilatzaile bat eta hemeroteka batean edo liburutegi digital batean behar den bilatzailearen artean desberdintasun nagusiak honako hauek dira:

- Dimentsioa: hemerotekak (eta liburutegi digitalak) handiak izan ohi dira, baina ez Internet sare osoa bezain handiak. Informazioa lokala izan ohi da, eta horren ondorioz, gehienetan, ez da aipatu den robota (sarea usnatzen duen elementua) behar.
- Metainformazioa: sarean deskribatzaileak difusoak dira, eta dokumentuen arteko estekak eta izenburuak dira emaitzak ordenatzeko erabiltzen diren oinarriko irizpideak. Hemeroteketan metadatuak egon ohi dira, osagai bakoitza fitxa dokumental batez deskribatzen baita. Beraz, bilatzailea metadatu horiei etekina ateratzen saiatu behar da. Bestalde dokumentuen arteko aipamenak egon ohi dira, baina gehienetan ez daude modu esplizituan (ez daude estekak), baina oso gai interesgarria da bilaketaren doitasuna handitzeko.

Metadatueta ematen den aniztasun eta elkar ulertzeko zailtasunak direla eta, gomendagarria da estandarrak jarraitzea. MARC eta *Dublin Core* dira proposamen interesgarrienak.

Aurrekoa kontuan hartuta sistema hauetako bilaketa metadatueta oinarritu ohi da, baina estaldura galdu nahi ez bada, testua ere erabil beharko da. Kontuan hartu behar da sistema hauetan estaldura oso garrantzitsua dela, Internet-en ez bezala, hemen dokumentuen erredundantzia txikia da eta, ondorioz, bilaketa askotarako dokumentu urri batzuk besterik ez daude. Gainera, erabiltzaileak askotan profesionalak dira eta bilaketa zehatzagoak eskatzen dituzte. Bestalde, ohiko bilatzaileen eraginez gero eta gutxiago erabiltzen dira bilatzeko formulario konplexuak, beraz, gomendagarria da metadatueta integrazioa bilaketa sinplean.


Teknologiari dagokionez, badaude hainbat produktu interesgarri bilaketak egiteko mota honetako eszenatokietan. *Autonomy*⁶ bilatzailea liderra omen da enpresa handietan, baina bere sistema oso garestia eta itxia da. Horren ordez *Lucene*⁷ erabil daiteke, irekia, moldagarria eta libreba baita. Liburutegi digital osoak eraikitzeke, bilaketa eta guzti, beste programa libre interesgarri bat

⁶ www.autonomy.com

⁷ <http://lucene.apache.org>

dago, *Greenstone*⁸. Dena den, oraindik ohikoak dira neurrira egindako soluzio itxiak.

2. irudian mota honetako bilatzaile baten adibidea dugu. Cervantes liburutegi digitalean bilatzeko interfazea⁹ ikus daiteke bertan. Hainbat metadaturen arabera bilatzeko aukera eskaintzen du.



2. irudia

Bilaketa liburutegi digital batean

5. TRESNA LINGUISTIKOAK BILAKETARAKO APLIKAZIOAK

Hizkuntza-ingeniaritza arloko tresna linguistikoek bilatzaileen doitasuna edota estaldura handitzen lagundu dezakete, batez ere hemerroteketako zein liburutegi digitaletako bilatzaileetan. Konplexutasunaren arabera aurkeztuko ditugu, atal bakoitzean oinarritzko teknologia eta aplikazioa azalduz.

⁸ www.greenstone.org

⁹ www.cervantesvirtual.com

6. MORFOLOGIAN OINARRITUTAKO TRESNAK

Oinarrizko teknologia hitza-lema arteko erlazioa bilatzea da. Analisia esaten zaio hitzetik lema edo forma kanonikoa (hiztegiko sarreraren baliokidea) lortzen den eragiketari, eta sorkuntza lematik forma posible guztiak lortzen denari. Flexio handiko hizkuntzatan tratamendu morfoloikoa ezinbestekoa da estaldura oso txikia ez izateko.

Bilatzaileetan prozesaketa morfoloikoa bi modutan egin daiteke. Lehenengoan indexatze-prozesuan hitzen orde, edo hitzekin batera, lemak gorde egiten dira indizeetan. Bigarrean hitzak gorde egiten dira, baina bilaketa egitean sorkuntza egiten da, sortutako hitz guztiak bilatuz, *edo* eragileaz konbinaturik.

Teknologia linguistikoa izan daiteke (lemak, aurrizkiak, atzizkiak, paradigmak, aldaketa fonologikoak etab. erabiliz), edo hurbilpen batez ebatzi, azken kasu horretan *stemming* edo sasilematizazioa esaten zaio eragiketari. Bilatzaile handietan sasilematizazio sinplea erabiltzen da, baina euskararen kasuan arriskutsua izan daiteke doitasun-galera handi sor daitekeelako.



3. irudia

Galdera zuzentzeko proposamenak

Aipatutako *elebila* bilatzaileak (1. irudia) integratuta du morfologia sorkuntzaren bidez [4]. Beraz, hitz bat ematen dugunean bilatzeko bere lema forma guztiak (edo garrantzitsuenak) sortzen dira estaldura egokia ziurtatzeko.


Horrez gain, morfologia eta estatistika konbina daitezke galderetan erroreak detektatzeko eta proposamen egokiak emateko, 3. irudian ikus daitekeen moduan.

7. SINTAXIAN OINARRITUTAKO APLIKAZIOAK

Testuen analisi sintaktiko sakona konputagailuz egitea ikergaia da gaur egun. Dena den analisi partzialak lortzen dituzten programak oso hedatuta dau-

de eta ondo funtzionatzen dute. Orokorrean IR arloan izen sintagmak bilatzen dira, informazio garrantzitsua eskaintzen dutelako: termino berriak, pertsonak, enpresak/erakundeak, tokiak...

Oinarriko elementu horiek eta estatistikak konbinatuz aplikazio interesgarriak sor daitezke, dokumentuak estekatuz edo multzokatuz adibidez. Gainera erantzun gehiegi itzultzen dituzten galderak fintzen lagun dezakete aplikazio horiek.



4. irudia

Sintaxian eta estatistikan oinarritutako sistemen adibideak

4. irudian agertzen diren webguneak horren adibideak dira: www.clusty.com, www.quintura.com, www.kartoo.com Ikus daitekeenez, batzuetan emaitzak erabiltzen dira bistaratze bereziak egiteko (multzoak, erlazioak...).

Euskarazko guneen artean www.zientzia.net aipa dezakegu, lematizazioa eta multzokatzea integratzen ditu-eta.

8. ELEANIZTASUNA. CLIR

Aplikazio eleanitzak egiteko hainbat aukera daude: hiztegi elebidun digitalak, ontologia eleanitzak eta itzulpen automatikoa. Ontologia eleanitzaren adibide gisa hurrengo atalean azalduko den *WordNet* dugu. Itzulpen automatiko zehatza [6] aspaldiko amets betegabea da, baina azken urteetan aurrerapen handiak egin dira, batez IR sistemetan integra daitezkeen sistema arin eta azkarren aldetik. Doitasuna ez da oso handia, baina aplikazioaren helburua itzultzea

ez denez kalitate onargarria izan daiteke IR aplikazioetarako. Antzekotasun handiko hizkuntzen artean itzultzeko edo baliabide asko duten hizkuntza nagusien artean itzultzeko, gaur programa nahiko zehatzak daude.

Euskararen kasuan, oraindik gauza asko egin behar dira baina gaztelaniatik euskara itzultzen duen lehen sistema dago eskuragarri¹⁰. Kalitatea oraindik ez da egokia itzulpen profesionalean erabiltzeko baina halako aplikazioetan erabil daiteke. 5. irudian adibide bat ikus daiteke.

Eleaniztasunean oinarritutako aplikazioen adibideak hemeroteka eleanitzak ditugu. Hainbat diseinu egin daiteke, bilduma hizkuntza bakar batean egotea, baina galderak edozein hizkuntzetan egin ahal izatea; galderak hizkuntza bakar batean baina dokumentuak eleanitzak izatea, edo aurreko bien konbinazioa., galderak eta dokumentuak eleanitzak. Are gehiago, argazkien edo bideoaren gaineko bilaketa eleanitza egin daiteke.

Horretarako bilatzailea hainbat aukera ditu, galderak edota dokumentuak itzultzea hitzez hitz hiztegien bitartez, edo itzultzea itzulpen automatikoaren bidez. Aukera gehiago daude, ontologia batera proiektu daitezke galderak eta dokumentuak. Kasu horretan bilaketa semantikoaz hitz egin daiteke.




5. irudia

Opentrad itzultzailearen adibidea

¹⁰ www.opentrad.com

9. SEMANTIKA. BILAKETA SEMANTIKOA

Bilaketa semantikoaren bidez hitzen bidezko bilaketan dauden arazo biri erantzun nahi zaie: adiera anbiguotasuna batetik (*baso* bilatzen badugu arbolen basoa edo edateko basoari buruzko dokumentuak atzituiko genituzke), eta sinonimia edo espezializazioa bestetik (*restaurante* bilatzen badugu, sagardotegi edo erretegi hitzak azaltzen diren dokumentuak ez genituzke lortuko). Bilaketa kontzeptuen bitartez egingo balitz, bi arazo horiek arinduko lirateke.



6. irudia

WordNet interfazearen adibidea

Gainera, kontzeptuen inbentario diren ontologiak eleaniztunak balira, orduan hizkuntzen arteko bilaketak ere hobeto egingo lirateke, kontzeptu gehienak konpartitzen baitira hizkuntzen artean. Web 2.0-n erabiltzen diren folksonomiak ez bezala, analisi semantikorako taxonomia eta ontologia formalagoak erabili ohi dira, eta horien artean WordNet (Ingeleserako ontologia elebakarra) erdua jarraitzen duten wordnet eleaniztunak dira erabilienak, IXA taldean beste erakunde batzuekin elkarlanean landu den *Multilingual Central Repository* (MCR) kasu [1]. MCR delakoak ingelera gaztelera, italiara, katalanera eta euskara biltzen ditu bere baitan. Bertan hizkuntzetatik independente izan nahi duen kontzeptu inbentario bat dago, eta kontzeptu horiei buruzko informazio semantiko aberatsa jasotzen da, taxonomia egiturak barne. Azken urteetan egindako ikerketari esker, kontzeptuei buruzko hainbat informazio

sartu izan da MCRen. Beheko irudian euskarazko baso-ri dagozkion bi adiera azaltzen dira, beste hizkuntzatako itzulpenekin batera, eta kontzeptuaren hainbat tasun semantikorekin batera (adibidez, gizonak egindako dela edateko basoa, edukitzeko ontzi baten propietateak dituela, instrumentu bezala erabili daitekeela, etab.). Hurrengo irudian azaltzen dira ere

10. ARGAZKIEN BILAKETA SEMANTIKO ELEANITZA

Ixa taldean, *Meaning*¹¹ proiektu europarraren barruan, MCR/WordNet erabili dugu argazkien bilaketa eleanitza hobetzeko [1]. EFEko fototeka erabili zen dokumentu-bildumatzat, eta bilaketa semantiko eleanitzaren bitartez lortzen genuen estaldura igotzea. Eleanitzasuna islatzen da 7. irudian. Ingeleseko galdera baten erantzunez gaztelaniazko fitxa duten argazkiak ere agertzen dira.

Alde semantikoaren onura ebaluatu ahal izateko, pertsonak eta hiriak ez ziren argazkiei buruzko 20 ataza definitu ziren. EFEko hiru dokumentalista aritu ziren 20 ataza horietan eskatzen diren argazkiak bilatu nahian, eta ikusi zen sistema semantikoarekin lehenagoko sistemarekin baino argazki gehiago lortzen zirela (24 berriarekin eta 20 aurrekoarekin) ekintza gutxiagoz (168 klik berriarekin eta 295 klik aurrekoarekin). Alde semantikoarekin lortzen diren emaitzen adibide gisa bi adibide aipatuko ditugu:


- Ingurumenarekin lotutako epaile baten argazkia bilatzean, semantikarik gabeko sisteman fitxa dokumentalean «magistrado» agertzen zireneko argazkiak ez ziren lortzen.
- Kolonbiako biolentziaren inguruko ehorzketa baten argazkia eskatzean ohiko sisteman zaila zitzaizen argazkia aurkitzea fitxan «entierro» agertu beharrean «sepelio» agertzen zelako.

11. ONDORIOAK

Artikuluaz azaldu dugunez, teknologia linguistikoak ekarpen handia egin dezake bilaketen arloan, bereziki hemerroteketan eta liburutegi digitaletan. Bilatzaile orokor ezagunenetan oraindik gutxi erabiltzen badira ere, erabilera handitzen doa, orokorrean estaldura handitzeko oso tresna interesgarria direlako. Tresna linguistiko hauek (sintaxia, itzulpena, semantika) ez dira gehiago erabiltzen oraingoz ez direlako nahiko eraginkorrak, prozesaketa-denboraren aldetik, prozesatzeko behar den memoriaren aldetik edo doitasunaren aldetik.

Dena den, gero eta gehiago erabiltzen ari dira, eta aipatutako mugak gainditzen diren neurrian erabilera handiagotu egingo da zalantzarik gabe.

¹¹ www.lsi.upc.edu/~nlp/meaning/



7. irudia

EFE fototekaren gaineko bilaketa eleanitza

BIBLIOGRAFIA

- [1] AGIRRE E., ALEGRIA I., RIGAU G., VOSSEN P. 2007. MCR for CLIR. *SEPLN aldizkaria, monografia TIIMM*. vol 38, 3-16. ISSN 1135-5948. <http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1174895701/publikoak/pdf>
- [2] BAEZA-YATES R., RIBEIRO-NETO B. 1999. *Modern Information Retrieval*. ACM Press Series/Addison Wesley, 1999.
- [3] BRIN S., PAGE L. 1998. *The anatomy of a large-scale hypertextual Web search engine* Computer Networks and ISDN Systems, Elsevier.
- [4] LETURIA I., GURRUTXAGA A., ARETA N., ALEGRIA I., EZEIZA A. 2007. EusBila, a search service designed for the agglutinative nature of Basque. *SIGIR2007—iNEWS'07 workshop*. ISBN 978-84-690-6978-3. <http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1190627800/publikoak/pdf>
- [5] MAYOR, A. 2007. MATXIN: *Erregeletan oinarritutako itzulpen automatikoko sistema baten eraikuntza estaldura handiko baliabide linguistikoak berrerabiliz*. Dokto-rego-tesia. Euskal Herriko Unibertsitateko; Donostiako Informatika Fakultatea. <http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Tesiak/1196444990/publikoak/Matxin2007.pdf>
- [6] SARALEGI X., ALEGRIA I. 2007. Similitud entre documentos multilingües de carácter técnico en un entorno Web. *SEPLN aldizkaria*, 2007. Sevilla. ISSN 1135-5948. <http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak/1184248312/publikoak/pdf>

VI

Sarean Zer? Interneteko berriak lotzeko baliabidea

Gregorio Hernández

Eleka Ingeniaritza linguistikoa

Eleka ingeniería lingüística

Laburpena: Interneten bidez hedatzen diren mota desberdinetako informazioek ez daukate elkarren arteko erlaziorik, hau da, erabilera askori begira ez daude ondo antolatuta. Horregatik, informazioa ikuspegi semantiko orokor batetik atzitu nahi dugunean ezinezkoa gertatzen zaigu. Sarean Zer? izeneko produktuak arazo horri aurre egin nahi dio egunkari digitalen esparruan. Bere helburua egunkari desberdinek argitaratutako albisteak lotzea da.

Resumen: Los diferentes tipos de informaciones que se difunden a través de Internet no tienen ninguna relación entre sí, es decir, no están bien organizadas, en lo que a utilización múltiple se refiere. Por eso, cuando queremos acceder a la información desde un punto de vista semántico general, nos resulta imposible. El producto denominado Sarean Zer? Pretende hacer frente a este problema en el ámbito de los periódicos digitales. Su objetivo es relacionar las noticias publicadas por los diferentes diarios.

1. SARRERA

Gaur egun, Interneten argitaratzen den informazioa; blogetako sarrerak, albisteak, eztabaidaguneak eta abarrek ez daukate inolako elkarren arteko erlaziorik, hau da, erabilera askori begira ez dago ondo antolatuta. Horren ondorioz, informazioa ikuspegi semantiko orokor batetik atzitu nahi dugunean ezinezkoa gertatzen zaigu.

Sarean Zer? produktuarekin, problema horri aurre egin nahi diogu, baina esparru mugatu batean. Zehazki, egunkari digitalen esparruan. Esparru zabal eta emankorra non informazioaren nolabaiteko antolaketak prentsa irakurtzeko modu berriak eta aberatsagoak eskaini ditzaken.

Aurkezten den sistemaren helburu zehatza egunkari digital batean argitaratutako albisteak beste egunkari digital batzuetako albisteekin (elkarren antzekotasun mailaren arabera) lotzea izango litzateke. Era horretan, irakurleak albisteak irakurri ahala bere aurrean duen albistearekin erlazionatutako beste albiste batzuk eskuragarri lituzke hizkuntza eta egunkari desberdinetakoak

direla ere. Funtzio honen abantailak ugariak dira: informazioa kontrastatzeko aukera, albiste bateko gai batean sakontzeko posibilitatea...

Sarean Zer? *Le Journal du Pays Basque* kazetan martxan dago eta euskaraz zein frantsesez argitaratzen diren berriak beste hainbat agerkari digitalen antzeko edukiko berriekin lotzen ditu. Hots, irakurleak <http://www.lejpb.com> webguneko berriak bistaritzen dituzenean, berri horren gaiarekin beste agerkari batzuetan argitaratutako berriak lotuta aurkitzen du. Momentuan bost hizkuntza desberdinetako albisteak prozesatzeko gai da: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta katalana.

Arakutzen diren agerkari digitalen zerrendan gertuko egunkari nagusiak (*Gara, Diario Vasco, Berria, El Correo, Noticias de Navarra, ...*) eta urruneko beste batzuk (*Le Monde, The Guardian, ...*) daude.

Sistemak administratzaileak ezarritako zerrenda bateko egunkari digitala periodikoki konektatzen da eta *Le Journal*eko albisten antzekoak identifikatzen ditu. Elkarren antzekoak sistemaren datu-basean gordeko dira *Le Journal*eko web-gunetik kontsultagai egon daitezen momentu oro.

2. TEKNIKAK (ARTEAREN EGOERA)

Informazio eleaniztunaren tratamenduari lotutako ikerketa-gaien artean, *Cross-Language Information Retrieval* (CLIR) [1] [2] eta horren baitan dagoen *Cross-language Similarity* ditugu. Eleaniztasunaren eremura eramandako teknologia asko bezala, horiek ere elebakarrean egindako lanetik abiatzen dira. Bai elebakarrean, bai eleaniztasunaren eremuan egindako lanak ugariak dira.

Dokumentuen arteko erlazioak bilatzen duen antzekotasun semantikoa neurtzeko metodoak bi ezagutza motatan oinarritzen dira: ezagutza linguistikoa eta metodo estatistikoetan [3]. Beraz, ezagutza horiek nola aplikatzen diren, metodoen arteko ezberdintasunak sortzen dira. Jarraian, gai honen arazo nagusiak eta literaturan aurkitu ditugun metodoak azalduko dira.

Dokumentuen arteko antzekotasunaz aritzen garenean, ez dugu zehazten zeren arabera egiten dugun konparazioa. Objektuen arteko antzekotasuna definitzerakoan, hainbat ezaugarri har daitezke kontuan:

- Ezaugarri estilistikoak; esaldien luzera, hitzen aldaerak...
- Metainformazioarekin erlazionatutako ezaugarriak: sorrera-data, egilea, formatua...
- Ezaugarri semantikoak, hau da, hitzek edo lemek eskaintzen duten informazio bera, gehi haien arteko erlazio semantikoak, askotan ontologia baten bidez adierazia. Ataza horretarako elementu batzuk giltzarri izan daitezke: entitateak, terminologia...

Le JPB > Pays Basque 2008-03-11

10 Hôtels à Bayonne propriétés du sud-ouest
 Réservez votre hôtel en ligne. Et profitez Immobilier de charme sur la Côte Basque et Landaise
 Annonces Google

Alors que la tempête approche le cargo échoué "Maro" est toujours plein de carburant

Le cargo "Maro" encastré au pied des falaises du mont Jaizkibel, entre Bayonne et Saint-Sébastien, est toujours bloqué. Les services de secours ne sont pas parvenus hier à vider le navire des 54 tonnes de gasoil qu'il transportait, ni des 2,6 tonnes d'huile qui sont toujours à bord. Le mauvais temps qui s'est levé hier dans la baie de Txingudi a rendu impossible toute manœuvre en ce sens.

Selon une source provenant des Secours Maritimes gipuzkoar, qui ont la petite quantité de gasoil. La tuite n'étant pas résorbée, une pollution "de petite ampleur" est à déplorer dans les alentours immédiats du cargo.

La nouvelle dans autres sites (BETA):
 Diario Vasco - El temporal terminó por romper en tres partes el buque embarrancado en Jaizkibel
 Berria - 'Maro' ontzia bi zatitan hautsi da, itsaso zakarraren ondorioz
 eitb24 - PASAIAN HONDARTUTA: 'Maro' ontziaren erregaia ezin izango dute gaur atera
 Le JPB - La tempête secoue fortement la Côtebasque et fait des dégâts à Saint-Jean-de-Luz
 Le JPB - 12 mars 1855 il y a 153 ans :

Imprimer

FRANCE 24
 Inscrivez-vous gratuitement

...Más noticias

Pays Basque
 "Prêts pour un accord entre communistes et socialistes"

Pays Basque
 Kotte Ecenarro dit non à la liste Biharko Hendaia

Pays Basque
 Le syndicat des hôteliers et des restaurateurs indépendants basques, défenseur de la qualité

1. irudia

Le Journal-eko berri bat eta Sarean Zer? sistemak beste hedabideetan topatu dituen erlazioatutako berriak

Informazio horiek guztiak konbinatu daitezke, eta, adibidez, izenburuen azterketa sintaktikosemantikoaren bidez ezar liteke dokumentuen arteko antzekotasunerako oinarrizko analisia.

Antzekotasuna neurtzeko prozesuaren lehenengo pausuan, dokumentua eredu konputagarri bihurtu behar da. Ezinbesteko urratsa da programazio-lengoaien bidez prozesatzeko Modelizazio horretan bi ezaugarri zaintzen saiatzen da: alde batetik, adierazgarritasuna, hau da, adierazi nahi dugun kontzeptuaren ezaugarri zuzenak kontuan hartzea eta zarata baztertzeara; eta, bestetik, eraginkortasuna, hau da, konputatze-prozesuaren abiadura ahalik eta azkarrena

izatea. Beraz, ezaugarrien hautaketa eta nola egituratzen den oso urrats garrantzitsua da modelizazioa egitean.

Antzekotasun semantikoaren arloan, hainbat eredu planteatu dira. Batzuek ezagutza linguistikoari garrantzi handiagoa ematen diote, eta besteek, aldiz, estatistikoari. Azken multzo horretan, ezagutza estatistiko hutsa ibiltzen duten ereduak daude. Dokumentuen edukiak adierazteko, bektoreak erabiltzen dira, eta horietan egituratzen dira testuko hitzak, gako-hitzak (*keyword*) ego n-gramak eta horien maiztasunak bektore batean egituratuta adierazten dira dokumentuen edukiak.

Hala ere, bada adierazgarritasun estatistikoari eragiten dion fenomeno bat hizkuntz guztietan gertatzen dena baina batez ere eranskarietan, adibidez, euskaraz, nabarmentzen dena: flexioa. Fenomeno honen ondorioz, lema berak hainbat testu-forma har ditzake (sare, sarea, sarengatik, sareekin...) eta agerraldi horiek lemarekin erlazionatu ezean, barreiadura sortzen da datu estatistikoetan. Beraz, ezagutza linguistikoa aplikatzea (kasu honetan, lematizazio prozesu bat) behar-beharrezkoa da. Beste eredu batzuetan, terminoen bidez adierazten da dokumentuen edukia. Horrelakoetan, termino-erazuzleak erabiltzen dira, eta erauzketa prozesuan eredu morfosintaktikoak aplikatzen dira. Horretarako, lematizazioaz gain, kategoriaren eta azaleko gramatika-egituraren informazioa ere behar da.

Orain arte aipatu ditugun ereduak informazio lexikoaz baliatzen dira. Beste eredu batzuk, ordea, horrelako informazioaz gain, esaldiaren egitura kontuan hartzen dute [4]. Horretara, hitzen testuinguruak alderatu daitezke. Esaldiak eta lexikoa (terminologia) grafo orientatuen bidez adierazten dira.

Dokumentu eleaniztunen kasuan, kontzeptuak hainbat hizkuntzatan adierazita daude, eta, lehen azaldutako ereduak hizkuntzatik independenteak ez direnez, ezin dira zuzenean erabili. Hori dela eta, lan askotan planteatzen den irtenbidea testuak itzultzea da. Testuak hizkuntza berean daudelarik, konparagarriak dira informazio elebakarrerako planteatu ereduetan. Hala ere, itzulpen-eredua erabiltzeak erroreak eragiten ditu, gehien bat lortutako itzulpenak ez direlako guztiz zuzenak. Itzulpen-eredua garatzeko ere hainbat teknika ikertu dira. Oinarrizkoena hiztegi elektronikoetan oinarritutako itzulpen-eredua litzateke [3]. Eredu horretan, hiztegian dauden sarrerak itzultzen dira desanbiguatzeko-prozesurik aplikatu gabe. Desanbiguaziorik eza leuntzeko, hiztegi probabilistikoetan oinarritutako ereduak erabili daitezke [5]. Eredu honetan desanbiguazio orokorra izan arren, itzulpenak hobetu egiten dira. Dena den, desanbiguazio-maila handia lortzeko, itzulpen automatikorako garatzen diren sistemak erabili beharko liriateke.

Lehen esan bezala, dokumentu elebakarrak modelatzeko erabiltzen diren ereduak aplikatzeko, itzulpen-eredu baten bidezko aurreprozesua egin behar da. Urrats hori ez da beharrezkoa hizkuntzatik independenteak diren ereduak erabiliz gero. Eredu hauek gai dira hizkuntza jakin batzuetan emandako dokumentuen edukiak era normalizatu batean adierazteko. Beraz, ez dute itzulpen-eredurik behar. Hala ere, mota honetako ereduetan modelizazio-prozesua

konplikatu egiten dira. Thesaurus eleaniztunetan oinarritzen diren eredueta adibidez, bi urratsetan egiten da modelizazio-prozesua [6]. Lehendabizi, eskuz etiketatutako testu batzuk trebatze-lagintzat erabiliz, thesaurus-eko kontzeptuen eta lemen arteko erlazioak aztertu eta gordetzen dira. Erlazio hori estimatzeko, egiantz-arrazoia (log-likelihood ratio) eta kideko elkartze-neurriak erabiltzen dira. Ondoren, testu berriei thesauruseko kontzeptuak automatikoki esleitzen zaizkie. Erlazioak eta pisuak bektore batean gordetzen dira. Beste metodo bat da thesaurus espezifiko bat erabili ordez WordNet-*ez* baliatzea [7]. Kasu horretan, kate lexikalak (lexical chains) erabiliz adierazten da dokumentuaren edukia [8]. Kate lexikal batean erlazio semantikoa dituzten hitzak (terminoak) gordetzen dira.

Orain arte dokumentuak eredu konputagarrien bidez nola adierazten diren aritu gara. Hurrengo pausua dokumentu modelizatuen arteko antzekotasuna neurtzeko teknikak aztertzea izango litzateke.

IR (Informazioaren berreskurapena) arloko teknikak erabili ohi dira antzeko dokumentuak bilatzeko. Bektore-espazio eredu (vector space) oinarritutako neurriak dira ohikoenak, bektoreen arteko kosinua kalkulatu dutenak hiru neurri desberdinak erabiliz bektoreen osagaiak adierazteko: bitarra, maiztasuna, eta LSA (Latent Semantic Analysis) transformazioa. Zabaldueña maiztasuna erabiltzea da, baina LSA bidez informazio semantiko inplizitua atzeman daiteke eta oso emaitza onak lor daitezke [9].

3. SISTEMAREN ARKITEKTURA

Sistemaren arkitektura hiru modulo nagusik osatzen dute: albisteen web-arakatzaila, albisteen edukien modelatzailea eta elkarren antzekoen detektatzailea. Labur azalduta, web-arakatzailak egunkari digital jakin batzuetan argitaratzen diren albiste berriak jaso eta testu-formatura pasatzen ditu. Ondoren, modelatzaileak teknika linguistiko eta estatistikoez baliatuta testuak Bektore Espazioaren ereduaren bidez adierazten ditu. Azkenik, behin arakatzailak jasotako albiste guztiak Bektore Espazioan adierazi eta gero elkarren antzekoen bilaketari ekingo zaio.

- **Albisteen web-arakatzaila:** Albisteak hainbat prentsa web-gunetatik hartzen dira. Zentzu horretan, web arakatzailak web-guneak bisitatu eta RSS jarioen bidez argitaratutako dokumentu berrien izenburuak, sarrerak eta HTML orria jasotzen ditu. HTML dokumentutik albistearen edukia bakarrik erauzteko helburuarekin *HTML-wrapperrak* garatu dira. Era horretan, edukia ez diren testuak (Menuak, iragarkiak...) baztertzen dira. Wrapperren diseinuan Perl programazio lengoia erabili da. Momentuan, arakatzaren diren hedabideen zerrenda honakoa da:

- *El Mundo* - www.elmundo.es
- *ABC* - www.abc.es

- *El Periódico de Catalunya* - www.elperiodico.com
- *La Vanguardia* - www.lavanguardia.es
- *El País* - www.elpais.es
- *Vilaweb* - www.vilaweb.cat
- *Diario Vasco* - www.diariovasco.com
- *El Correo* - www.elcorreodigital.com
- *Gara* - www.gara.net
- *Berria* - www.berria.info
- Noticias taldea - <http://www.noticiasdenavarra.com>
- eitb24.com
- *Le Monde* - www.lemonde.fr
- *Liberation* - www.liberation.fr
- *NY Times* (USA)- www.nytimes.com
- *The Times* (UK) - www.timesonline.co.uk
- *BBC News* (UK) - news.bbc.co.uk
- *Guardian* (UK) - <http://www.guardian.co.uk/>
- *Al Jazeera* (Arabe) - english.aljazeera.net
- *La jornada* - www.jornada.unam.mx



El lehendakari, Juan José Ibarretxe, ha insistido hoy en que la consulta, «más pronto que tarde, será inevitable» para lograr la solución del «conflicto vasco». Ibarretxe ha pronunciado un discurso de dos horas en el último pleno de política general del Parlamento Vasco de la legislatura, que acaba en marzo, en el que se ha propuesto «afrontar tres grandes obstáculos»: la ruptura de la tregua de ETA, la suspensión de la Ley de Consulta y la crisis económica. La línea en la que «sigo creyendo es un diálogo sin exclusiones», para alcanzar un acuerdo que contemple «el reconocimiento de la existencia del pueblo vasco y el derecho a decidir su propio futuro»

...

2. irudia

Arakatzailak berriak jasotzen ditu hainbat hedabidetatik eta wrapper-ak erabilita, berriaren testua bakarrik berreskuratzen du

— **Edukien modelatzailea:** Hainbat teknika edo paradigma daude testuen modelizazioaren alorrean. Guk eskura genezkan baliabideak eta era-

ginkortasuna kontuan hartuta Bektore Espazio ereduak erabili dugu. Bertan testu-edukia gako hitzak eta beren adierazgarritasun-mailak dituen bektore baten bidez adierazten da. Hitz-gakoak edo lexiko adierazgarria identifikatzeko teknika linguistikoez baliatu gara. Zehatz mehats, izenak, aditzak, adjektiboak, entitateak eta hitz anitzeko terminoak hartu dira hitz-gako posibletzat. Izenak, aditzak eta adjektiboak identifikatzeko **Eustagger** POS/lematizatzailea erabili da euskararen kasuan. Ingelesa, katalana eta gaztelaniaren kasuan **Freeling** etiketatzailea erabili da. Azkenik, frantseserako **Apertium**-eko etiketatzailea erabili da. Entitateak eta hitz anitzeko terminoak harrapatzeko ordea aplikazio berriak garatu dira. Entitateen harrapatzailea ahalik eta zehatzena izateari, hau da, doitasunari eman diogu lehentasuna. Batez ere, okerreko entitateek ereduak distortsiona dezaketelako. Gainera, testu periodistikoetan entitateek oso unitate adierazgarriak dira. Beraz, haien detekzio zehatzak eragin zuzena dauka antzeko dokumentuak identifikatzerakoan. Terminoen harrapatzailearen kasuan ere doitasuna izan da gure lehentasuna. Zentzu horretan, detekzio-prozesua hiztegi terminologikoetan oinarritu da. Bestalde, hizkuntza desberdinetako dokumentuen bektoreak elkarrekin alderatu ahal izateko hiztegien bidezko estrategia jarraitu da. Dena dela, bektore bat beste hizkuntza batera pasatzean haren errepresentazioa kaltetu egiten da. Alde batetik, gako-hitz batzuk ez direlako itzultzen (ez daude hiztegian), eta bestetik itzulpenetan anbiguotasunak gertatzen direlako. Hiztegien estaldura hobetzeko ere kognaduran oinarrituko teknikak aztertu dira. Modelizazioaren bukaeran hitz-gakoen pisua kalkulatzeko tfi-idf multzoko neurrien bidez egin da.


El lehendakari, Juan José Ibarretxe, ha insistido hoy en que la consulta, «más pronto que tarde, será inevitable» para lograr la solución del «conflicto vasco». Ibarretxe ha pronunciado un discurso de dos horas en el último pleno de política general del Parlamento Vasco de la legislatura, que acaba en marzo, en el que se ha propuesto «afrontar tres grandes obstáculos»: la ruptura de la tregua de ETA, la suspensión de la Ley de Consulta y la crisis económica. La línea en la que «sigo creyendo es un diálogo sin exclusiones», para alcanzar un acuerdo que contemple «el reconocimiento de la existencia del pueblo vasco y el derecho a decidir su propio futuro»
...



Ibarretxe 0.85
Gatazka 0.75
Kontsulta 0.72
...

3. irudia

Testua modelizatu egiten da eta bektore bat lortzen da hitz-gakoekin eta hauen garrantziarekin



4. irudia

Bektoreak euskara itzultzen dira, hurrengo pausuan hizkuntza ezberdinetako berrien arteko antzekotasuna kalkulatu ahal izateko

- **Elkarren antzekoen detekttagailua:** Bi dokumenturen arteko distantzia estimatzeko dokumentuen bektoreen arteko kosinua kalkulatzan da. Hau da, bi bektoreak normalizatu eta geroko biderketa eskalarra. Gutxieneko balio bat gainditzen dutenak elkarren antzekotzat hartuko dira. *Le Journal*-eko berri batek antzeko dokumentuak baldin baditu, hauen estekak aterako dira, 1. irudian agertzen zen bezala.

- [1] Modern Information Retrieval. Ricardo Baeza-Yates, Berthier Ribeiro-Neto. Addison-Wesley. 1999.
- [2] CLIR: Cross-language information retrieval. G Grefenstette-Kluwer, Boston, 1998.
- [3] B.MATHIEU, R.BESANÇON, C.FLUHR, «Multilingual document clusters discovery», *RIAO* 2004, Avignon, France, April 26-28, 2004.
- [4] KHALED M. HAMMOUDA «Efficient Phrase-based document indexing for web document clustering».
- [5] TIM LEEK, HUBERT JIN, SREENIVASA, RICHARD SCHWARTZ «The BBN crosslingual topic detection and tracking system», BBN Technologies, MA.
- [6] RALF STEINBERGER, BRUNO POULIQUEN, JOHAN HAGMAN, «Cross-lingual Document Similarity Calculation Using the Multilingual Thesaurus EUROVOC» (2002).
- [7] EUROWORDNET: a multilingual database with lexical semantic networks. P Vossen-Norwell, MA: Kluwer Academic Publishers, 1998.
- [8] NICOLA STOKES, JOE CARTHY, «Combining Semantic and Syntactic Document Classifiers to improve First Story Detection», Department of Computer Science, University College Dublin, Ireland.
- [9] S. T. DUMAIS, T. A. LETSCHE, M. L. LITTMAN, AND T. K. LANDAUER. Automatic cross-language retrieval using latent semantic indexing. Working notes of AAAI Spring Symposium on Cross-Language Text and Speech Retrieval, 1997.

2. Atala
PROFESIONALEN EKARPENAK

2.^a Parte
APORTACIONES PROFESIONALES

VII

Euskadi Irratiko Artxiboa

Iñigo Ceberio

Euskadi Irratiko Fonotekako Arduraduna
Responsable de la Fonoteca de Euskadi Irratia

Laburpena: Eusko Irratiko artxibo historikoa digitalizatzeko prozesua 1996an hasi zen. Garai hartan aitzindariak izan ziren euren dokumentuak modu digitalean artxibatzean. Artxiboaren baloreak programazio historikoan eta fonoteka digitalean datza. Batetik, programazio historikoak, elkarrizketak, kronikak, saio esanguratsuak biltzen ditu; azken finean, 1982-2008 urte bitarteko gure herriaren memoria historikoa. Fonoteka digitala, bestetik, biniloak, CDak eta zinta analogikoak digitalizatzeko lan handiaren ondorioa da.

Resumen: El proceso de digitalización de Eusko Irratia comenzó en 1996, estableciéndose como referencia al archivar los documentos en formato digital. El principal valor del archivo reside en la programación histórica y la fonoteca digital. De un lado, la programación histórica recoge las entrevistas, crónicas y programas más destacados, al fin y al cabo, constituye la memoria histórica de nuestro pueblo de 1982 a 2008. Por otro lado, la fonoteca digital es el resultado del laborioso trabajo de digitalizar vinilos, CDs y cintas analógicas.

Eusko Irratiko Soinu Artxiboa bere osotasunean (batez ere Radio Vitoria bere 50 urterekin), Euskal Herriko garrantzitsuena dela esan genezake, bai bolumen aldetik, baita gordeta dituen dokumentuen aberastasun eta interesagatik.

Argi daukagu ondare hau erabat digitalizatu behar dela; bere garaiari grabatutako euskarriek ez dute denbora luzean iraungo eta (zinta magnetofonikoak, kaseteak).

Artxibo zerbitzua fonoteka bat, liburutegi txiki bat (musika liburu eta aldizkariak osatua) eta datu base batez osatua dago. Lanpostu guztietatik kontsultagarria da.

Orain dela sei hilabete dokumentu fisiko guztiak **biltegi** batean sartu ditugu. Zinta irekiak, CDak, biniloak etab. Orain egunean hiru aldiz jaisten gara biltegiara, baina Musika Zerbitzariari esker, oso eskari gutxi ditugu.

Ahots artxiboa eskura dugu CD-Rom eta Disko Gogorretan, nahiz eta on-line ez egon. (Aurten dena disko gogor batean sartu nahi dugu).

Gordetzen ditugun **fondoak** hauek dira: Euskadi Irratia, Gaztea eta EITB Musikak sortzen dituzten informatibo eta programetako dokumentuak; musika komertziala eta guk egindako grabazio musikalak: Jazz Jaialdiak, Euskadiko Orkestraren abonamendu kontzertuak, Donostiako Hamabostaldia etab.

Soinu Artxiboa

A) *Oinarrizko Ondarea*

Fonoteka

44.250 euskarri ditu momentu honetan (300.000 kantatik gora). Bertan musika komertzial guztia gordetzen dugu: CD, LP, Single, Kasete etab. Hau dena kudeatzeko, EITBko Informatika sailak, gure eskaerekin landutako «Fonoteka» deritzan datu basea dugu.

Grabazioak

Euskadi Irratiak grabatutako 700 kontzertu ditugu. Euskadiko Orkestraren abonamendu kontzertu guztiak (1982-2008), Hamabostaldia, Donostiako eta Gasteizko Jazzaldiak, Euskal Kantarien Jaialdiak (24 ordu euskaraz).

Hauek oraindik zinta magnetofoniko, VHS eta DATean gordetzen ditugu, nahiz eta asko digitalizatuta eduki. Honetarako ere datu base berezia dugu.

Ahots Artxiboa

Euskadi Irratia + Gaztea Irratiaren programa eta ahots korteak gordetzen dituen datu basea da. Informatiboetako artxiboa 4.000 orduetik gorakoa da. Beste hainbat ordu programa eta elkarrizketa, saio berezi etab.

B) *Bestelako fondoak:*

Musika Zerbitzaria: 68.000 soinu artxibo «on-line» ditu. Euskal Musika, Pop, Klasikoa, Jazz eta Zine musikaz osatua. Edonork kontsulta dezake Miramon edo Bilboko egoitzetan, erredakzioko edozein postutik.

Digitalizatutako LP eta CDen zerbitzaria: 10.000 diskotatik osatua (120.000 kantatik gora). Bertan soinuaz gain, karatula eta Interneten aurkitu daitekeen informazio osagarria eransten diogu. Ez dago on-line oraindik.

Bertso Artxiboa: *Knosys* sisteman egindako datu basea da. Gure ondare garrantzitsuenetako bat, bakarra baita da Euskal Herri osoan.

Mujikaren Euskal Perlak (MEP). Katalogazio sistema berezia Portu behar izan genuen. (Denetara 1.500 orduetik gora).

Dramatikoak: *Babilonia, 15 Egun Urgainen, Maloney Detektibea, Xanti Taxi, 60 Eskaloi.*

Zaragozako Fondoak: 5.000 LP Musika Klasikoa. Eresbilen bilduak daude 2005etik. Oso bilduma ona.

Kontsulta eta Mailegua

Digitalizazioari esker, hemen nabaritu dugu ohitura aldaketa handiena:

Mailegua:

2001: 31.679
2002: 28.167
2003: 25.702
2004: 17.131
2005: 6.356
2006: 2.137
2007: 1.450

Egunean hiru aldiz joaten gara biltegiara, eta eskatzen den guztia zerbitzarian digitalizatzen da.

Kontsultak erabiltzaileak pertsonalki egiten ditu bere lanpostuan; behar izanez gero Fonotekako langileek laguntzen diote.

Digitalizazioa

1996ko martxoan, zinta magnetofonikoa, kasettea, kartutxeroak, denak atzera geratu ziren. Platoak ere zuzeneko kontroletatik kendu genituen, soilik Fonotekan bat utzi genuelarik.

Teorikoki, **konpresio sistema berriekin** soinu kalitatea ia perfektua zen, edizioa erabat erraztu zen eta pilatzeko eta almagatzeko erraztasun handigoa genuen. Hala ere, berehala ikusi genuen Disko Magnetooptikoeak bere arazoak ekartzen zituztela edota CD-Rom bat puskatuz gero informazio pila galtzen genuela. Ondorioz, dena bikoizten hasi ginen.

Honekin batera **Gestioaren informatizazioa** martxan jarri genuen. Digitalizazio prozesua hasterakoan, oso argi genuen eguneroko **produkzioarekin lotuta** joan behar zuela. Horretarako GDS («Gestión de Sonido») eta APL («Aplicación Programación Por Listas») izeneko programak erosi ziren.

Gestio sistema hauek MP2 izeneko fitxero konprimituak erabiltzen zituzten. Hasieran disko gogor txiki bat (Gb 1) genuen. Eta musika programazioa 500 CDko robot batekin egiten genuen.

Baina berehala konturatu ginen **Musika Zerbitzari** handi bat genuela. Hau da zerbitzari horren historia laburra:

2000: 500 kanta Pop oso ezagunak: Beatles, Joe Cocker, Sting, Platters...

2001: 2.000 kanta EITB Irratia martxan jartzeko (2001eko ekainean). Batez ere euskal musika eta Pop.

2002-2007: 500 kanta galdu ondoren zerbitzari berri bat jarri genuen martxan. Euskadi Irratian eta Gaztean digitalizatuta zegoen fondo guztia bolkatu

genuen. Orain 68.000 artxibo ditugu on-line eta zerbitzua Irrati eta ETB guztiarentzat da, Donostian, Bilbon eta Gasteizen.

Musika aukera oso zabala da, beti eguneroko jardunera erabat lotua: Pop, Jazz, Klasikoa, Jaietako musika (Inauteriak, Gabonak...), Efektoak, «Topikoak» (Ezkontza, Lo Kantak...).

Gure kasuan, digitalizazioak **irradi berri bat** (EITB Irradia) sorrarazi zuela esan genezake.

Arazoak

Katalogazioa

CDU bezalako klasifikazio sistemek ez digute uzten gure eguneroko lana egiten, lau musika genero baino ez dutelako jasotzen: antzerkia, opera; erlijio-musika, musika abestua eta musika instrumentala. Ondorioz, guk asmatu behar izan dugu katalogazio modu berri bat.

Katalogazio berri honek orain arte ezagutzen ez ziren datuak behar zituen: kanta baten erritmoa, zarata maila, nolako «introa» duen, etab.

Planifikazio eza: eguneroko beharren arabera lan egiten dugu.

Dokumentu fisikoak

Jendeak euskarri fisikoa eskatzen du. Oraindik ez dira ohitu digitalera.

Internet

Bezeroa zorrotzagoa da: Interneten dena «eskuragarri» dago eta dena momentuan nahi du. («Claro De Luna» wikipedia.)

Formatu Aniztasuna

2003an 12 formatu zeuden. Gaur 100dik gora.

Normalizazioa falta da formatu digitaletan: MP2, MP3 (Frekuentzi desberdinak: 128, 192, 320...), MP4, M4a, FLAC, Ape, Ogg...

Konpresioak ekartzen duen arazoa: orijinala gorde beharra (Gure kasuan LP askok balio historikoa dutelako).

Gizonaren belarriaren efektu psikoakustikoaren arabera landutako konpresio sistemekin (MPeg 1 0Layer II), almagatzeko arazoa konpondu zen, baina hasieran pentsatzen ziren abantailak ez dira denak hain onak izan:

1. «Soinu kalitate perfektua»: Denek ez datoz bat honekin (Goio Torrontegi).
2. «Editatzeko erraztasuna zintak manipulatu gabe»: honekin batera zintak errez galtzeko arriskua sortu zen.

3. «Almazenatzeko erraztasun eta fiabilitatea»: Segurtasun kopiak behar dira gure esperientziak erakutsi digunez (500 kanta galdu).

Alde onak ere baditu, noski:

1. Gestio zentralizatua: Grabazio guztiak eskura ditugu.
2. Manipulazio akats gutxi: behin zinta ondo grabatuz gero, betirako erabilgarria da.
3. Benetan emititu dena kontrolatzeko aukera: batez ere publizitatean edo SGAE-ren zerrendak osatzeko.

Fonoteka Birtuala

2005ean hasi genuen, EITB osorako balioko duena. Sistema honek dena batu nahi du: fondo guztiak digitalizatu eta erabat eskuragarria izan dadin.

Arazoak:

- Lau Fonoteka zahar ditugu bakoitza bere lan sistema bereziarekin.
- Sistema eta datu base desberdin asko bata bestearekin konpatible ez direnak: GDS, Musicom, Oracle, Redakzio.

VIII

Catalogación y ambientación del sonido en radio y televisión

Itziar Mendia

Responsable de la Fonoteca de Radio Euskadi
Radio Euskadiko Fonotekako Arduraduna

Laburpena: Dokumentazio-Sailak azken 25 urtetan izandako euskarri eta lan-jarduera aldaketak azalduko ditu ponentzia honek. Era berean, «irratia egiten duten» horiekiko harremanak sailkapen elementuak zehazteko zein garrantzitsua den azalduko du. Horretarako, zenbait adibide praktikoa aurkeztuko du.

Resumen: Esta ponencia explicará el recorrido de 25 años de experiencia del Departamento de Documentación en relación con los cambios habidos en soportes y sistemas de trabajo. Además, destacará la importancia del contacto con «quienes hacen la radio» para identificar los elementos de catalogación. Todo ello se explicará mediante diversos ejemplos prácticos.

Soy Itziar Mendia y me ocupo de la catalogación de los documentos sonoros y de la ambientación en Radio Euskadi, es decir de la voz y de la música. Como sabéis, el Grupo EITB agrupa a varias emisoras de radio y de televisión, y estamos en este momento en el proceso de constituir una Fonoteca Global para el grupo. El proyecto ya está estructurado y acordado. Lo más difícil ya está hecho y ahora solo falta seguir el camino. Con esto quiero decir que antes, en cada emisora de radio y televisión, existía un departamento de Fonoteca aislado, que respondía a las necesidades de cada emisora individual. Ahora tenemos una plataforma común y trabajamos, o al menos hemos iniciado el proceso, de un trabajo en conjunto y con unos criterios comunes.

Os voy a contar un poco cómo se inició todo esto. En un principio, hace 25 años, todavía no contábamos ni con CDs, y hoy en día ya son una reliquia en la mayoría de los casos. Nuestros soportes eran los LPs, las cintas casete, las cintas magnéticas de larga duración, los dats. Os diré que hemos iniciado la recuperación del archivo histórico de voz y hemos tenido dificultades incluso para encontrar aparatos reproductores de las cintas revox. Claro está, los técnicos de sonido ya ni tienen platos para los LPs en los controles de la radio. Todo ha sido sustituido por ordenadores.

Si bien la llegada de las nuevas tecnologías ha supuesto un avance en todos los sentidos, también hemos tenido que ir adaptándonos y configurando los nuevos programas, las nuevas formas de trabajo, etc. Pero, un aspecto de interés que me gustaría destacar es que las Fonotecas de las radios nunca han funcionado como centros en los que se encargaban de la catalogación en un departamento cerrado y punto, sino que el contacto con los realizadores de programas e informativos ha sido una realidad constante. Por lo tanto, los distintos campos de los que luego hablaremos —y que han sido identificados para la catalogación de los documentos sonoros— son muy prácticos, en el sentido de que la experiencia nos ha permitido identificar la realidad de las demandas radiofónicas. Se trata de un proceso muy dinámico, por lo que la interacción de quienes trabajan en la fonoteca y el resto de los colegas supone un elemento de retroalimentación constante.

Además, en la definición del puesto de trabajo están implicadas las tareas de catalogación y ambientación, por lo que podemos decir que nosotros lo guisamos y nosotros lo comemos. Pero, ¿quién mejor para ayudar y asesorar que la persona que tiene que estar escuchando todo el día la nueva música que sale al mercado? En lo que se refiere a la televisión, trabajamos con la misma base de datos, aunque las necesidades de ambientación de espacios televisivos difieren. En la televisión cuentas ya con imágenes en pantalla, pero en la radio tienes que conseguir que la música te lleve al ambiente deseado.

Como digo, compartimos bases de datos y fondos musicales, aunque en la televisión utilizan también un tipo de música que se denomina «de librería», ya catalogada de manera general, por razones de derechos de autor. Pero es en el mundo de la radio donde la música adquiere mayor importancia. Solo en Radio Euskadi mensualmente se emiten más de 1.500 canciones y se atienden unas 300 consultas de asesoramiento o recomendación.

La música se utiliza evidentemente en programas musicales, pero también como elemento identificador de la emisora en las sintonías, o como elemento identificador de un programa determinado, como noticia cuando se trata de una novedad reciente en el mercado, como separador de contenidos, como ambientación de programas y reportajes, en emisiones automatizadas. Es decir, cumple objetivos distintos, por lo que los criterios de catalogación han de tener en cuenta todos ellos a fin de satisfacer las demandas por uno u otro motivo.

La catalogación que se lleva a cabo es bastante exhaustiva, aunque nuestra meta no es realizar una catalogación terriblemente detallada (no somos musicólogos), a la que luego no podemos acceder de manera rápida y eficaz y que suponga más un obstáculo que una facilidad. La inmediatez es una de las características de la radio. A veces no tienes más que unos segundos para localizar una canción. Es decir, la experiencia de estos 25 años nos ha permitido identificar los campos de catalogación necesarios para acomodarnos a las necesidades de la programación.

Y para terminar, y antes de explicar unos ejemplos sobre lo que hemos estado hablando, aunque hoy en día Internet nos permite localizar información de todo tipo, el valor añadido de lo que nosotros proponemos es que el millón

de canciones con las que cuenta el Grupo EITB están o estarán catalogadas conforme a las necesidades específicas de una emisora de radio o de televisión.

- **Barrura begirakoa:** argitaratutako informazio guztiaren fondo dokumentala tresna ezin hobea litzateke hedabide bakoitzaren eskaintza hobetu ahal izateko: herriko jendearen biografiak, gertaeren kronologiak, anekdotarioak eta abarrak sortzeko ezinbestekoa da hemeroteka ondo antolatuta edukitzea. Horrek, gainera, hemerotekaren ustiapen komertziala ere egiteko aukera eman lezake.
- **Kanpora begirakoa:** esan bezala, hedabideok argitaratutako fondoek beste inon jasota ez dagoen informazioa biltzen dute, eta zentzu horretan, oso material interesgarria dira tokiko historialarentzat, bai eta euskalkien ikerketan diharduten hizkuntzalarientzat. Fondoek tratamenduak halakoek lana erraztea ere izan beharko luke helburu nagusien artean.

Zailtasunak

Tratamendu hori egiteko, esan bezala, saiakeraren bat edo beste egon izan da orain arte, tamalez aurrera atera ezinik geratu dena. Besteak beste, honelako zailtasunak aurkitu izan ditugu saiakera horietan:

- **Ugaritasuna:** 42 hedabide oso ezberdin eta erabat autonomorekin ari gara lanean. Ugaritasun hori, gero aipatuko dugun aniztasuna bezalaxe, balio gisa hartzen dugu, autonomian eta behetik gorako eskemetan sinesten dugulako. Aldi berean, hala ere, ukazina da ugaritasun horrek zailtasunak sortzen dituela horrenbeste borondate ezberdin batzen saiatzeko orduan.
- **Aniztasuna:** Esan dugun bezala, erabat autonomoak dira mintzagai ditugun hedabideak, eta haien artean era guztietako tamainak, antolakuntza motak, maiztasunak, euskarriak eta abarrak aurki daitezke. Aniztasun hori, gainera, gure balioetako bat da, eta beraz ezin zaio uko egin. Honek, aurrekoak bezala, egundoko aberastasuna ematen digu, baina zailtasunak ere sortzen ditu antolakuntza zein teknika alorretan.
- **Baliabide eskasia,** eta, harekin lotuta, **lehentasun zerrenda.** Lehenengo eta behin hedabidea bera atera behar da aurrera, eta beste guztia bigarren mailakoa da.

Aukerak

Baina zailtasunak ez ezik, aukerak edo ‘erraztasunak’ ere baditugu alor honetan. Nagusia, hedabideok sortzeko euskarrian aurkituko dugu: zorionez,

edo tamalez, tokiko hedabide guztiak berri samarrak dira, eta gehienak behintzat formatu digitalean sortu dira hasiera-hasieratik. Hasierako zenbaki batzuen euskarri digitalak honezkero galduta egongo badira ere, gehien-gehienak eskuragarri egon daitezke oraindik, eta horrek lan izugarria aurreztu ahal digu eduki zaharren tratamenduan. Euskarri digitalik ez dagoen kasuetan ere, papezkoa topatzea erraza da.

Erronka

Hortxe beraz, erronka. Federazioan prest gaude euskarazko tokiko aldirakien tratamendu dokumentala lantzen hasteko baina, esperientziak hala erakutsita, esparru horretan gu baino jantziago daudenen laguntza behar dugu lana behar bezala burutzeko: Zentzuzkoa da tokiko hedabideen balio dokumentalaren inguruko kezka? Zer artxibatu behar dugu, eta nola? Nola bermatu balizko fondo horren barrura zein kanpora begirako erabilgarritasuna? Geuk bakarrik egiteko moduko lana da ala beste eragile batzuen inplikazioa ere bilatu beharko genuke? Zeintzuk izan daitezke balizko beste eragile horiek? Beste leku batzuetan nola erantzun zaio kezka honi?

Baten batek erantzunak emateko (edo bilatzeko) modua izanez gero, entzuteko prest aurkituko gaitu.

XVIII

Hemeroteka Plus: publikazio idatzien ustiaketa digitala

Julen Arrizabalaga

Plazaguneako Sail Komertzialeko arduraduna
Responsable del Departamento Comercial de Plazagunea

Laburpena: Hemeroteka Plus eta Prentsa Dosierrak izeneko aplikazioak idatzizko prentsa jarraitzeko Plazaguneak garatu dituen bi sistema dira. Aurrenak, Hemeroteka Plusek, 2004ko urtarriletik gaur arte argitaratu diren egunkari garrantzitsuetan gainean, irizpide konkretuekin bilaketak egiteko balio du eta Prentsa Dosierrak, berriz, egunero norberaren intereseko zenbait gairen inguruko prentsa dosierrak sortzen ditu automatikoki.

Resumen: Las aplicaciones Hemeroteka Plus y Prentsa Dosierrak son dos sistemas desarrollados por Plazagunea para realizar el seguimiento de la prensa escrita. Hemeroteka Plus sirve para realizar búsquedas con criterios concretos en los periódicos más relevantes publicados desde enero de 2004 hasta la actualidad. El segundo, Prentsa Dosierrak, en cambio, crea automáticamente dossier de prensa sobre diferentes temas del interés del usuario.

Zer da Hemeroteka Plus aplikazioa

Publikazio idatzien ustiaketa digitala ahalbideratzen duen aplikazioa da. Hemerotekaplus, hau da, paper euskarrion publikatutako edukien gainean bilaketak egiteko aukera ematen digun sistema bat da.

Ze abantaila eskaintzen ditu

- Bilaketa sistema erraza eta azkarra.
- Emaitzak PDF formatuan jasotzen dira.
- Paper artxiboak ekiditeko aukera ematen digu.
- Dosierrak sortzeko eta postaz bidaltzeko aukera ematen du.
- 2004ko urtarriletik honako egunkariak atzigarri daude sisteman.

Ze eduki aurkitu ditzaket

HemerotekaPlus bezero bakoitzari egokitzen den aplikazio bat da, eta bezero jakin bakoitzak dituen interesen arabera iturriak ezartzen dira bertan. Oro har, hasieratik prentsa egunkari nagusienak ditugu bertan sartuta.

Hauek dira bertan aurkituko ditugun iturri nagusiak: *Berria*, *Deia*, *El Diario Vasco*, *El Correo*, *El País*, *El Mundo*, *Le Journal*, *Diario Noticias*, *Diario Noticias Álava*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Gara* eta *Público*.

Nori dago zuzenduta

- Publikazio hauen gaineko jarraipena egiten duen edozein erakunderi.
- Liburutegiak.
- Irakaskuntza.

Aplikazioaren funtzionamendua

Hemeroteka Plus, ondoko irudian ikus daitekeen bezala, erabilerraza da.

Eguneko prentsa ikusteko atala. Klikatu egunkariaren ikonoaren gainean eta eguneko egunkaria ikusi ahalko duzu.

The screenshot shows the Hemeroteka Plus interface. At the top, there is a grid of newspaper logos and their respective dates for July 19, 2006. The logos include Berria, DEIA, Diario de Navarra, Noticias, Diario Noticias de Álava, EL CORREO, EL DIARIO VASCO, EL MUNDO, EL PAIS, and Gara. Below the grid, there is a search bar and a section for selecting newspapers. A blue arrow points to the newspaper icons, and a green circle highlights a calendar for August 2006. A black circle highlights the newspaper selection checkboxes.

Bilaketak egiteko atala. Bilaketa irizpidea idatzi ondoren, egunkari guztiak edo egunkari jakin batzuk aukeratu ditzakezu, azkenik data tarte bat aukeratu eta bilatu sakatu.

Egunkari osoak eta edizio ezberdinak aurkitzeko atala. Aukeratu data eta egunkaria edo egunkari guztiak eta sakatu bilatu.

Irudian ikus daitekeen bezala, hiru ingurune ditu, hala ere garrantzitsuenak ingurune horia eta urdina dira. Ingurune urdina, egunkari osoak aurkitzeko erabiltzen da, data eta bilatu nahi den egunkaria aukeratu eta zuzenean egun horretako egunkaria irekiko zaigu.

Hala ere, ingurune horia da garrantzitsuen, bertan, hitz eta bestelako irizpideen gaineko bilaketak egiteko aukera dugu. Adibidez, Ibarretxeren inguruko albisteen bilaketa burutu nahi badut, bilaketa eremuan Ibarretxe jarriko dut, gero ze egunkaritan eta ze data tartetan bilatu nahi dudan esango diot sistemari eta jarraian Ibarretxe agertzen den egunkari orri guztiak ekarriko dizkit sistemak.

Emaitzak sailkatuta ematen ditu sistemak. Bi sailkapen mota daude, bata garrantziaren arabera, sistemak emaitza bakoitza baloratzen baitu irizpide batzuen arabera eta garrantzitsuenetik balio gutxienera ordenatzen ditu, eta beste aldetik, dataren arabera ere ordenatu daitezke emaitzak.

Ikus emaitza orri bat:

The screenshot shows a search results page with the following content:

Emaitzak ordenatu dina: Bilaketako testuaren garrantziarekiko Zentzuz Gorrakorra Beherakorra **ORDENATU**

- 1.- Gara - 2006/07/06 - 19. orrialdea**

... de la Izquierda Abertzale. De esa forma, el juez de la Audiencia Nacional coincide con el fiscal Juan Antonio García Jabaly, quien, en contra de la petición de la asociación Dignidad y Justicia, rechaza la posibilidad

EDIZIOA: OROKORRA; ATALA: EUSKALHERRIA

PDFren tamaina: 33,3 Kbyte | [Lehio berria](#) | [JPEG formatuan ikusi](#) | [PDFa dosieretan zehatz](#)
- 2.- El Diario Vasco - 2006/07/04 - 32. orrialdea**

... agos ha podido saber este periódico. El núcleo duro del Ejecutivo vasco, formado por el lehendakari Juan José Ibarretxe (PSE) y los conserjes de Justicia y Asuntos Sociales, Jesús Azkara (EA) y Javier Aldeabaso (EJ), se

EDIZIOA: GENERAL; ATALA: Zehaztu gabe

PDFren tamaina: 71,7 Kbyte | [Lehio berria](#) | [JPG formatuan ikusi](#) | [PDFa dosieretan zehatz](#)
- 3.- El País - 2006/07/06 - 34. orrialdea**

... el Gobierno y le advierte sobre los presupuestos de 2007 ISABEL C. MARTINEZ, Victoria El lehendakari Juan José Ibarretxe zehatu ayer al ejercicio del derecho de autodeterminación como "la clave de la vida" del proceso de paz

EDIZIOA: GENERAL; ATALA: Zehaztu gabe

PDFren tamaina: 125,6 Kbyte | [Lehio berria](#) | [JPG formatuan ikusi](#) | [PDFa dosieretan zehatz](#)
- 4.- Diario de Noticias - 2006/07/14 - 14. orrialdea**

... artículo que marca la línea editorial del periódico. Por su parte, el lehendakari del Gobierno Vasco, Juan José Ibarretxe, calificó de "sin sentido" el arresto. Al ser preguntado por la detención de Pablo Hoz, el delegado

EDIZIOA: GENERAL; ATALA: Zehaztu gabe

PDFren tamaina: 63,0 Kbyte | [Lehio berria](#) | [JPG formatuan ikusi](#) | [PDFa dosieretan zehatz](#)
- 5.- Diario de Noticias de Alava - 2006/07/04 - 21. orrialdea**

... de paz - D.N.A. "del debate surgen las garantías para que haya voluntad de acuerdo en la mesa" **lehen orri** [Lehendakari LAFRASE](#) ...

EDIZIOA: GENERAL; ATALA: Zehaztu gabe

PDFren tamaina: 85,9 Kbyte | [Lehio berria](#) | [JPG formatuan ikusi](#) | [PDFa dosieretan zehatz](#)
- 6.- Noticias de Gipuzkoa - 2006/07/04 - 22. orrialdea**

... de paz - D.N.A. "del debate surgen las garantías para que haya voluntad de acuerdo en la mesa" **lehen orri** [Lehendakari LAFRASE](#) ...

EDIZIOA: GENERAL; ATALA: Zehaztu gabe

PDFren tamaina: 82,9 Kbyte | [Lehio berria](#) | [JPG formatuan ikusi](#) | [PDFa dosieretan zehatz](#)
- 7.- El Correo - 2006/07/04 - 33. orrialdea**

... EL CORREO MARTES, 4 DE JULIO DE 2006 POLITICA ACTUALIDAD A 33 EFE OIA72 Juan José Ibarretxe advirtió ayer de que el diálogo con actualmente mantienen las Formaciones políticas hay que "emitarlo"...

EDIZIOA: VIZCAYA; ATALA: Zehaztu gabe

Bilaketa hauetan guztietan euskarazko bilaketak errespetatzen dituen KAUSI bilatzailea erabiltzen da. Kausi, Plazaguneak eta Euskal Herriko Unibertsitateko IXA Taldeak garatutako bilatzailea da. Bilatzaile honek lematizatzaile bat du eta honi esker gai da bilatu nahi diren hitzen lema ateratzeko, gero lema horretatik flexio bidez eratutako hitz guztiak bilatzeko. Adibidez, erabiltzaile batek bilatzailean «zerga» hitza jartzen badu, Kausi bilatzaileak, zerga hitzaz gain, zergez, zergen, zergak, zergaz, e.a. bilatuko dizkiugu, aldiz, ohiko bilatzaile bat erabiliko bagenu, soilik zerga hitza agertzen den artikulua bilatuko litziguke.

Anexoa

Gida: Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio zerbitzuak

Teresa Agirreazaldeg, M.^a Milagros Ronco eta Idoia Camacho

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak
Profesoras de la Universidad del País Vasco

Laburpena: Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio zerbitzuen direktorio hau ikerketa lan baten emaitza da. Gida honen bertsio elektronikoa Interneten dago, datuak guztion eskura izan daitezzen. Izan ere, sarea bide egokiena da datuak gaurkotuta mantentzeko, gida batentzat ezinbesteko baldintza. Dokumentazio Zerbitzu bakoitzaren helbidea, telefonoa, webgunea, arduradunen izenak, erabiltzaileak... aurkituko dituzu hemen, eta funtsen zein ondare dokumentalen deskripzioak ere. Interneten, testuez gain, argazki, soinu eta bideoak ere ikusgai daude. Ekimenak «Dokumentazioa Komunikabideetan» ikasgaiko ikasleen laguntza jaso du.

Resumen: Este directorio de servicios de documentación de medios de comunicación del País Vasco es el fruto de un proyecto de investigación. La versión electrónica de esta guía está en Internet, de forma que los datos estén disponibles para todos. En efecto, la red es el modo más idóneo para mantener actualizadas las informaciones, condición indispensable para una guía. De cada Servicio de Documentación se ofrece la dirección, teléfono, página web, nombres de sus responsables, usuarios... pero también la descripción de los fondos documentales. En Internet, además de los textos, aparecen también fotos, sonidos y vídeos. El proyecto ha contado con la colaboración de los alumnos de la asignatura «Documentación en Medios de Comunicación».

<http://gidadok.com/>

Antena 3 TV País Vasco

Telebista

Enpresaren izena: Antena 3 TV**Komunikabidearen zabalkundearen eremua:** Espainia**Webgunea:** <http://www.antena3tv.es>**Helbidea:** Camino Capuchinos de Basurto 6 - 1 sol. 17.
dep. 48013 Bilbo**Sortze data:** 1994**Erabiltzaile mota:** Albistegietako erredakzioa**Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua:** 1999tik 2004ra, lurraldeko albistegien hasierarekin batera, dokumentalista bateko lanpostua sortu zen. Gaur egun ez dago holako zerbitzurik.

1. Bideotekaren datuak

Funtsak: Dokumentuak 1994tik gordetzen dira, nahiz eta dokumentazio-zerbitzua berez 1999an sortu eta 2004ko abenduan desagertu zen: albistegi guztien «antena paraleloak» (emanaldiaren kopia formatu profesionalean), gaiaren arabera «konpaktatuak» (zintetan grabazioen kopiaketa, gaika), EAE-ko eguneroko albistegien editajeak, *A fondo* asteroko albistegiaren editajeak, jatorrizko grabazioak, eta promozioko zintak.

Kopurua: Gutxi gorabehera 6.000 zinta gordetzen dira, ondare zaharrenak Betacam SP eta 1999tik Betacam SX formatuetan.

Zabalkunde eremua: Euskal Autonomia Erkidegoa, Kantabria, Errioxa eta Burgoseko herririk gertuenak.

Ezaugarri teknikoak: Barruko sarea A3 TV. PROA datu-base dokumentala.

Atlas País Vasco

Telebista

Enpresaren izena: Atlas País Vasco**Komunikabidearen zabalkundearen eremua:** Espainia**Webgunea:** <http://www.atlas-news.com>**Helbidea:** Ribera de Elorrieta, 9. 48015 Bilbo**Telefonoa:** 94 474 55 00**Fax:** 94 474 78 12**Harremanetarako pertsona:** Sonia Guardado; Estíbaliz López**Posta elektronikoa:** sonia@5wagenciatv.com**Sortze data:** 1998**Erabiltzaile mota:** Kazetariak**Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua:** Bi

1. Bideotekaren datuak

Errekurtso eta editaje garrantzitsuak hautatzen dituzte, 1993tik hasita. Bideozintak: 1.500 zinta dvcpro eta 300 zinta Betacam formatuan. Gaiak: gizarte, kirol, politika, terrorismo, kultura etab. Herrialdeak: Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE). Hizkuntza: Gaztelania. Datu-baseetako kontsultak dokumentalistek egiten dituzte batik bat.

Ezaugarri teknikoak: Etxeko informatikariek garatutako sistema. Momentu honetan datu-baseak erreferentziak soilik jasotzen ditu.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoaia: Ez da lengoaia dokumentalik erabiltzen.

2. Prentsa artxiboaren datuak

Funtsak: Espainiako eta EAEko egunkariak.

3. Fonotekaren datuak

Funtsak: Musika CDak, baina oso gutxi daude eta beste sail batek du horren ardura.

Berria

Egunkaria

Enpresaren izena: EKT**Komunikabidearen zabalkunde eremua:**

Euskal Herria

Webgunea: <http://www.berria.info>**Helbidea:** Martin Ugalde Kultur Parkea. Gudarien Etorbidea z/g.

20140 Andoain

Telefonoa: 943 30 40 30**Harremanetarako pertsona:** Margari Eizagirre**Posta elektronikoa:** dokum@berria.info**Sortze-data:** 2003-06-20**Erabiltzaile mota:** Kazetariak**Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua:** HiruThe logo for 'berria' consists of the word 'berria' in a bold, lowercase, sans-serif font. The letters are black and set against a light gray rectangular background.

1. Prentsa artxiboaren datuak

Funtsak: *Berria*, *Egunero*, *Hitzak*, liburutegia, aldizkariak eta bildumak.

Liburutegia: 1.300 lan inguru; *Euskaldunon Egunkaria:* 1990etik 2003ko otsailera arteko enkuadernazioak; *Hitzak*; *Egunero:* 2003ko otsailaren 21etik ekainaren 20ra. Gaiak: Orotarikoak. Herrialdeak: Mundu zabala. Hizkuntzak: Euskara.

Ezaugarri teknikoak: Datu-basea: mysql, Perl eta PHP CGI-ak. Testu indexatzailea: swich-a.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoaia: SHU liburutegirako, IPTC testuak aztertzeko. Biak ere euskaratu eta euren beharretara egokituak.

2. Argazki artxiboaren datuak

Funtsak: Agentzietako argazkiak: Argazki Press, EFE, *Le Journal*. Besteak: bertako kazetariak lortutakoak edo jendeak emandakoak. Kopurua: 1.200.000 argazki digital eta 50.000 inguru paperean.

Gaiak: Orotarikoak. Herrialdeak: Mundua. Hizkuntzak: Euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa.

Ezaugarri teknikoak: Datu-basea: mysql, Perl eta PHP CGI-ak.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoaia: IPTC egokitua.

3. Eskainitako beste zerbitzu batzuk

Kanpoko eskaerak.

4. Etorkizunerako egitasmoak

Audioak ere artxibatzea.

Bizkaia Irratia

Irratia

Enpresaren izena: Irratibide S.A.
Komunikabidearen zabalkunde eremua: Bizkaia
Webgunea: <http://www.bizkaiairratia.com>
Helbidea: Fontetxa eta Salazar 9, 5. 48007 Bilbo
Telefonoa: 94 446 68 00
Fax: 94 446 76 78
Harremanetarako pertsona: Miren Ezkurra
Posta elektronikoa: musika@bizkaiairratia.com
Sortze data: 1990
Erabiltzaile mota: Kazetari-esatariak
Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua: Bat



1. Fonotekaren datuak

Funtsak: Musika artxiboak eta ahots artxiboak. Guztira, 400 bat musika ordu ordenagailuan; eta soinu artxiboak, esate baterako, 150 ordu baino gehiago 2007an.

Fitxetan abeslari edo talde nahiz abestiaren izenburuak eta izenak agertzen dira. Jatorrizko hizkuntzan daude fitxak. Soinu artxiboak (ahots korteak) aparteko karpitetan gordetzen dira ordenagailuan edo euskarri digitaletan. Saio edo arlo bakoitzari lotutakoak dira karpetak. Soinu fitxetan izena, gaia eta data zehazten dira, batez ere.

Musika arduradunak darama eta ahotsak (prentsaurrekoak, elkarrizketak) kazetari bakoitzak kudeatzen ditu. Barruko sarearen bidez kontsultatzen dira.

2. Etorkizunerako egitasmoak

Asmo nagusia teknologia berriei egokitzea da eta sailkatze eta bilaketa sistema hobetzea.

Deia

Egunkaria

Enpresaren izena: DEIA**Komunikabidearen zabalkunde eremua:**

Euskal Autonomia Erkidegoa

Webgunea: <http://www.deia.com>**Helbidea:** Camino de Capuchinos 6, 5 C**Telefonoa:** 94 459 91 00**Fax:** 94 459 91 19 / 94 459 91 20**Harremanetarako pertsona:** Miren Josune Nevado**Posta elektronikoa:** mnevado@deia.com**Sortze data:** 1997**Erabiltzaile mota:** Kazetariak**Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua:** Bat

1. Prentsa artxiboaren datuak

Funtsak: Egunero argitaratzen diren argazki, orrialde eta albisteak gorde edota eskaintzen ditu.

Kopurua: 80 orrialde gutxi gorabehera, ehun argazki eta 300 albiste. Orain 2004tik aurrerako informazioa dago artxiboan eta pixkanaka-pixkanaka hasierako informazioa digitalizatzen joango da. Gaiak: edozein gai izan daiteke, baina Euskadiko gaiak agertzen dira normalean; horiekin batera, munduko gertaerak ere. Hizkuntzak: Euskara eta gaztelania.

Ezaugarri teknikoak: Arcano programa, Millenium teletipoa.

2. Argazki artxiboaren datuak

Funtsak: Argazkilariak egunero Euskadin gertatzen diren gertaeren argazkiak eta munduan gertatzen direnak teletipoen bidez eskegitzen ditu.

Kopurua: Ehun argazki egunero gutxi gorabehera. Gaiak: Orotarikoak. Herrialdeak: Edozein. Hizkuntzak: Euskara eta gaztelania.

Ezaugarri teknikoak: Arcano eta Millenium. Erabiltzaileek datu-baseak zuzenean kontsultatzeko aukera dute, Arcano Visual programaren bidez.

3. Eskainitako beste zerbitzu batzuk

Interneten bidez aleak ere berreskuratzeko aukera daukate erabiltzaileek.

4. Etorkizunerako egitasmoak

Paperean eta negatiboan dauden dokumentuak digitalizatu eta artxibo berberean eduki.

Enpresaren izena: La Información S.A.

Komunikabidearen zabalkunde eremua: Nafarroa

Webgunea: <http://www.diariodenavarra.es>

Helbidea: Zaragozarako errepidea 2.5km. 31191 Cordovilla

Telefonoa: 948 236050

Harremanetarako pertsona: Angel Zoco Sarasa

Posta elektronikoa: documentacion@diariodenavarra.es

Sortze data: 1979ko urtarrila

Erabiltzaile mota: Enpresako lantalde osoa, normalki La Informacion Taldeko orotariko argitalpenetako erredakzioetako kideak. Marketing eta publizitatea bezalako esparruetakoak ere, askotan erabili ohi dute.

Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua: Sei

Diario de Navarra

1. Prentsa artxiboaren datuak

Funtsak: Prentsa artxiboaren oinarria hauxe da: 1903tik gaur arteko heme-roteka; 1979-1998 bitartean eratutako dosierren ondarea; beste medioetan plazaratutako albisteen hautaketa, 1979tik 1998ra bitartean paperean eta 1999tik aurrera era digitalean.

Ezaugarri teknikoak: 1979ko uztailera bitartean euskarri bezala papera erabili zuten. Hauek, alfanumerikoki sailkatutako dosierretan gorde ziren. 1979ko uztailetik aurrera, erabiltzen den euskarria digitala da. Ondarea garatzen eta lantzen joan den heinean, sistema digitalean ere aldatuta asko gertatu dira. Une hauetan albistearako txt, orrialdeetarako pdf eta irudietarako jpg formatuak erabili ohi dituzte eta Oracle Intermedia eta SQL programak erabiltzen dira.

2. Argazki artxiboaren datuak

Funtsak: Argazkien artxiboan mende hasieratik aurrerako irudiak agertzen dira, baina 1922. urtera arteko irudiak nahiko urriak direla esan behar da. 80. hamarkadara arte erabiltzen diren euskarriak, papera eta argazkien negatiboak dira. Hortik aurrera, pelikularen eta sistema digitalaren arteko elkar uztarketa bat hasten da. 2005etik aurrera digitalki bakarra ekoizten da. Azkenik, 1979tik aurrerako irudi denak, berdin du berez zer euskarrirakoak diren, denak digitalizatuta daude.

Kopurua: Orain, milioi bat irudi digitalen bueltan dabilta. Pelikulan edo positibatutako parean gordeta dagoen artxibo historikoa ez dago zenbatuta, baina oso garrantzitsua da.

Ezaugarri teknikoak: Irudiak prentsara zuzenduta daude. Hori dela eta, jpg formatuan ez dute mega bat baino gehiago betetzen. Batzuetan kalitateko argitalpen eta erakusketetarako, eskaneatu bereziak egin ohi dituzte. Baina normalki digitalizazioa 300 dpi-ko definizioan eta jatorrizko neurriak errespetatuz egin ohi dute. Irudia txikia bada, 1.200eko neurrira irits daitezke.

Enpresaren izena: Diario de Noticias
(Zeroa Multimedia S.A.)

Komunikabidearen zabalkunde eremua: Nafarroa

Webgunea: <http://www.noticiasdenavarra.com>

Helbidea: Altzutzate 8, Areetako industri poligonoa.
Huarte-Iruña.

Telefono zenbakia: 948 33 25 33

Fax: 948 33 25 18

Harremanetarako pertsona: Itziar Aldaz

Posta Elektronikoa: documentación@noticiasdenavarra.com

Sortze data: 1994. urteko apirilaren 8a

Erabiltzaile mota: Egunkariko esparru guztietako langileak
(erredakzioa, publizitatea, marketing-a, administrazioa)

Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua: Hiru



1. Prentsa artxiboaren datuak

Funtsak: Artikuluak automatikoki datu-basean gordetzen dira eta make-tazioak aurretiaz erabakitako guneetan banatzen dira. 1995. urtetik 1998. urte bitarteko lanak datu-basean gordeta daude. 1998tik 2004ra arte, berriz, dokumentazio gunean izan zituzten arazo tekniko eta pairatu zituzten sistema aldaketak tarteko, paperean gaika gordeta daude. Azkenik, 2004. urteko urritik aurrera kaleratutako guztia pdf formatuan gordeta aurkitzen da. *Diario de Noticias* egunkariaren bi bilduma enkuadernatu eta *Diario de Navarra* egunkariaren bilduma bat ere gordeak dauzkate.

Kontsultarako eta fotokopiatzeko eskain dezakeen erosotasunagatik, urtebeteko epea daukaten egunkariak ere bloketan gorde ohi dituzte.

Ezaugarri teknikoak: Erabiltzen duten datu-basea Mediasgrid izenekoa da eta hainbat liburutegitan berezitua dago:

- Testuak (artikuluak izango liratekeenak).
- Zain dauden irudiak (oraindik dokumentatzeke dauden argazkiak).
- Historikoa (argazki digital eta digitalizatuen artxibo historikoa).
- Pdf (pdf formatuko orrialdeak).
- Liburuak (gordetako liburuen fitxa katalogafikoak).
- Kontaktuak (negatibo gisa gordetzen diren argazkien fitxak).

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoia: Hiztegi egoki eta kontrolatu bat erabili ahal izateko aukera daukaten arren (deskriptore ez-hierarkikoak, dokumentalistek bere garaian sortu zituztenak), denboraren gabeziak ez die gauzak behar bezala gordetzen uzten eta, hori oinarri hartuta, testuak libreki gordetzeko beharrean aurkitzen dira.

2. Argazki artxiboaren datuak

Funtsak: Gaur egun artxibatzen diren argazki guztiak digitalak dira eta denak datu-base batean gordeta daude. Kaleratutako argazki denak eta plaza-ratu ez diren argazki hautatuak artxibo historikoaren parte dira; 2001. urtetik aurrerako artxiboaren parte, hain zuzen ere. 1994. urtetik 2002. urtera bitarteko irudi gehienak berriz, era negatiboan eta zenbaki korrelatiboekin ordenatutako artxibategian gordetzen dira. Horiek behar bezala errekuiperatu ahal izateko, interesatuak beharrezkoa du datu-basean kontsulta egitea.

Kopurua: 575.000 argazki digital, guztiak ere artxibo historikoaren parte dira. 154.227 kontaktuetarako erregistroak (denak era negatiboan).

Ezaugarri teknikoak: Mediagrid izeneko datu-basea.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoaia: Kontrolatutako hiztegia (*keywords*-ak edo deskriptore ez-hierarkikoak).

3. Eskaintako beste zerbitzu batzuk

2004. urtean aurreko egunkariaren (*Navarra Hoy*) argazki ondare guztiak digitalizatu ziren eta orain, gainerako argazki guztiak bezalaxe, artxibo historikoaren parte dira. Era berean aipatu behar da 1982-1994 urte bitarteko *Navarra Hoy* egunkariaren ale guztiak ere enkuadernatuta eta gordeta daudela. Noticias Taldeko beste egunkariak abian jarri zirenetik, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Noticias de Álava*, beren artxiboa Taldeko edozeinek erabil eta ikuskatu dezake.

*Diario de Noticias*ek kaleratu eta ekoiztutako liburuez osatutako liburute-gi txiki bat ere badaukate eta Nafarroarekin lotura eduki dezaketen orotariko gaiak jorratze dituzten bestelako liburu batzuen bilduma ere bai.

4. Etorbizunerako proiektuak

Gaur egun, 1994-2004 urte bitarteko *Diario de Noticias* egunkarien orrialdeak berreskuratzen ari dira, denak pdf formatuan. Berehalakoan, *Diario de Noticias* egunkaria biltzen duten bi bilduma enkuadernatu bestelako eraikin batera eramateko asmoa dago. Hartara, artxiboan espazioa aurreztu egin ahal izango baita.

EITB Irratiak

Enpresaren izena: Eusko Irratiak S.A. (EITB)
Irrati publikoak
Komunikabidearen zabalkunde eremua: Euskal Herria
Webgunea: <http://www.eitb.com>



RADIO VITORIA

Helbidea: Domingo Martínez de Aragón, 5-7 behea.
01006 Gasteiz
Telefonia: 945 01 25 00
Harremanetarako pertsona: Roberto Oñederra
Posta elektronikoa: Oinederra@eitb.com

RADIO EUSKADI

Helbidea: Basurtuko Kaputxinoak, 2. 48013 Bilbo
Telefonia: 944 01 24 00
Harremanetarako pertsona: Itziar Mendia
Posta elektronikoa: Mendia_itziar@eitb.com

EUSKADI IRRATIA

Helbidea: Miramon Pasealekua, 172. 20014 Donostia
Telefonia: 943 01 23 00
Harremanetarako pertsona: Iñigo Zeberio
Posta elektronikoa: Ceberio_inigo@eitb.com
Sortze data: 1934tik aurrerakoa, *Radio Vitorian*; 1982z geroztikoa, *Euskadi Irratian* eta *Radio Euskadin*
Erabiltzaile mota: Bertako langileak
Dokumentazio zerbitzuko langile kopurua: Sei

1. Fonotekaren datuak

Funtsak: Fonoteka historiko bat, batez ere, *Radio Vitoriaren* fondoekin eta gaur egun EHUren esku jarrita dago, Gasteizen. Beste fonoteka historiko gazteago bat, *Euskadi Irratiarena*, baina zati batez Eresbilen esku utzia. Hiru fonoteka dituzte: Miramon, Gasteiz eta Bilbon, irratigune banatan, eguneratuak eta oso erabiliak.

65.000 abestiko fonoteka digitalizatua EITB barruko sarean jarria kazetari eta komunikatzaileen erabilerarako. Gero eta erabiliagoa da. Ahots eta saio artxibo zabala daukate, EITBko informazio eta programaziotik sortutako soinu-dokumentuak jasoz. Irrati bakoitzak bere zerbitzua du. Orain bateratu egin nahi da eta *ETB* eta Interneteko zerbitzuekin konpartitu.

Kopurua: 75.000 LP eta single guztira (oraindik EITB barruan dauzkatenak eta beste erakunde batzuen esku utzi dituztenak ere —EHU eta Eresbil—); 60.000 CD; 65.000 kantu musika zerbitzari digitalizatuan; 20.000 programa eta ahots-dokumentu (zenbait euskarritan: kaseteak, DAT-ak, CDak, magneto optikoak, disko gogorra...).

Erabilitako gaiak, herrialdeak, urteak eta hizkuntzak: musikan, denetarik, nola lurraldez hala hizkuntzaz, estilo eta moduz. Programa eta ahots-dokumentuetan Euskal Herria batik bat; euskaraz eta gaztelaniaz bakarrik, ia erabat.

Ezaugarri teknikoak: Gaur egun erabiltzen dena ia erabat CDak eta disko gogorra dira.

Datu-baseak: Sarean kontsultagarri jarrita daukatena, etxe barruko sarean bakarrik, hau da EITB barruan, alegia. ORACLE datu-baseak ia erabat.

2. Etorkizunerako egitasmoak

EITB osorako fonoteka bateratu bakar bat izatea, hein handi batean digitalizatua eta soinu-dokumentu guztiak etxe barruko sarean jarriak, kazetari eta komunikatzaileek eskura-eskura izan ditzaten. Pausoak ematen ari dira, areago joango da zerbitzu-bateratze hau ondorengo hilabeteotan.

Fonoteka eta diskoteka historikoa ere EITB mailan katalogatu, gorde eta zaintzea. Katalogazio-irizpideak bateratuz eta, ahal den heinean, digitalizazio-prozesu bati ekitea.

Fonoteka-zerbitzu guztietan ikuspegi multimedia (soinu, irudi, idatzi) lantzea, erabilgarritasun anitza areagotuz.

Enpresaren izena: El Correo Español-El Pueblo Vasco
Komunikabidearen zabalkunde eremua: Euskal Autonomia Erkidegoa, Errioxa, Burgos eta Kantabria
Webgunea: <http://www.elcorreodigital.com>
Helbidea: Pintor Losada, 7. 48004 Bilbo
Telefona: 94 487 01 51
Harremanetarako pertsona: Jesús María Oleaga
Posta elektronikoa: joleaga@diario-elcorreo.es
Sortze data: 1987, baina lehenagotik artxibo bat zegoen
Erabiltzaile mota: Dokumentazioan profesionalak ez direnak
Dokumentazio zerbitzuko langile kopurua: Hiru

The logo for EL CORREO, featuring the words "EL CORREO" in a bold, black, sans-serif font. A thick red horizontal line is positioned directly beneath the text.

1. Prentsa artxiboaren datuak

Funtsak: Idatzizko hedabideek argitaratzen duten guztia gordetzen da (paperean, xml eta pdf); horretaz gainera, aldizkariak eta liburuak ere bai. Kopurua: artikuluetan 1.340.000. Gaiak: eguneroko egunkari batenak. Hizkuntzak: gaztelania eta euskara.

Ezaugarri teknikoak: Intranet.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoia: Lengoia librea.

2. Argazki artxiboaren datuak

Funtsak: Etxeko argazkilariak eta herririk herriko agentzietakoek ateratako argazkiak gordetzen dira. Ez denak. Argazki guztiak digitalak dira. Kopurua: 390.000 gutxi gorabehera. Gaiak: Tokian tokiko argazkiak izan ohi dira gehienetan. Hizkuntza: Gaztelania.

Ezaugarri teknikoak: Intranet.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoia: Lengoia librea. Batzuetan hizkuntza kontrolatua erabiltzen da, hala ere (argazkiei lehenetasun-maila jarri dakieke).

3. Bideotekaren datuak

Funtsak: Oso proiektu berria da. *Bilbovisione*ko bideoak dituzte. Fitxero digitalak dira, baina Acces-eko datu-base zahar bat gordetzen da. Kopurua: Access-eko 400-500 bideo inguru. Herrialdea: oso tokikoa, Bilbokoa batez ere. Hizkuntza: gaztelania.

Ezaugarri teknikoak: Intraneten bidez kontsultatzen dira datu-baseak.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoia: Lengoia librea.

4. Eskaintako beste funts eta zerbitzu batzuk

Kanpoko testu eta argazkien datu-baseak kontsultatzeko aukera dago, taldekoena ere, metabilatzailearen bidez. Liburutegi txiki bat dago eta hainbat aldizkari ere gordetzen da.

5. Etorkizunerako egitasmoak

Hemerotekaren digitalizazioa amaitu. *Bilbovisión*eko katalogazioa normalizatu eta *Alava 7*rekin hasi. Egunkariaren egunerokotasuna mantendu eta, ondoren, irratiekin zer egin pentsatu.

Enpresaren izena: El Diario Vasco
Komunikabidearen zabalkunde eremua: Gipuzkoa
Webgunea: www.diariovasco.com
Helbidea: Portuetxe kalea, 2. 20.018 Donostia
Telefona: 943 41 07 92
Harremanetarako pertsona: Juan José Bikandi
Posta elektronikoa: documentacion@diariovasco.com
Sortze data: 1991
Erabiltzaile mota: Hainbat hedabidetako erredakzioak
Dokumentazio zerbitzuko langile kopurua: Bost

EL DIARIOVASCO

1. Prentsa artxiboaren datuak

Funtsak: 1999tik aurrera plazaratutako albisteak datu-basean eta orrien pdf-tan gordetzen dira, gutxi gorabehera, 900.000 bat albiste eta 400.000 pdf inguru. 1935etik 1998ra *El Diario Vasco* egunkariko zenbakiak enkuadernatuta daude eta kontsulta hori erredakzioetan bakarrik egin daiteke. Artikuluak gaztelaniaz eta euskaraz daude.

Ezaugarri teknikoak: Datu-basea enkarguz egindako programaren gainean eraikita dago eta barruko sarearen bitartez kontsultagai dago.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoaia: Sistema propioa da, enkarguz eginda, gaztelaniaz.

2. Argazki artxiboaren datuak

Funtsak: Egunkari baten datu-basea da eta 400.000 argazki ditu. Gaiak: Gipuzkoako egunkari batenak. Hizkuntza: gaztelaniaz.

Ezaugarri teknikoak: Datu-basea enkarguz egindako programaren gainean eraikita dago eta barruko sarearen bitartez kontsultagai dago.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoaia: Sistema propioa da, enkarguz eginda, gaztelaniaz.

3. Etorkizunerako egitasmoak

Poliki-poliki *TeleDonosti* kateko bideoak jasotzeko asmoa dago.

ETB

Telebista publikoa

Enpresaren izena: ETB-Euskal Telebista**Komunikabidearen zabalkunde eremua:** Euskal Herria**Webgunea:** www.eitb.com**Helbidea:** Basurtuko Kaputxinoak, 2. 48013 Bilbo**Telefonoa:** 94 656 30 00**Harremanetarako pertsona:** Jesús Anderez Unquera
(Dokumentazio eta Artxibo Saileko zuzendaria)**Posta elektronikoa:** anderez_jesus@eitb.com**Sortze data:** 1985, baina biltegiko materialaren kontserbazioa
1983. urtetik aurrera eman da.**Erabiltzaile mota:** Barneko erabiltzaile eta baimendutako
kanpoko erabiltzaileak. Mailegu zerbitzua barrukoa da soilik,
ez da bezeroenganako zerbitzurik ematen.**Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua:** 21

1. Dokumentazio eta Artxibo Saila:

*ETB*ko Dokumentazio eta Artxibo Sailak bi funtzio nagusi ditu. Alde batetik, *ETB*ren emisioak eta, batez ere, *ETB*k ekoiztutako saioak gordetzen ditu, eta albistegien eta etxeko ekoizpenen tratamendu dokumentala egiten du, artxibatutako materialaren deskribapena eta indizea osatzen duten datu-baseen bidez. Bestetik, emisioko zintak prestatzen ditu, Aurkezpen Sailaren esku utziz. Horrez gain, euskarri dokumentala eskaintzen die (irudiak, audioa eta informazioa) barneko erabiltzaileei eta kanpoko erabiltzaile baimenduei. Zerbitzu hori hiru sailek osaturik dago: Dokumentazio Idatziko Zerbitzua (hemeroteka), Fonoteka Zerbitzua eta Bideoteka Zerbitzua.

2. Dokumentazio idatziko zerbitzua (Hemeroteka)

*ETB*ko zenbait sailetako eskariei erantzuten die. Horretarako, liburuen fondo bat eta erreferentziatzko materialen gida bat osatzen du eta, oinarrian, hainbat egunkari eta aldizkariaren informazioa jasotzen du. Bi sail nagusi daude. Alde batetik, prentsa artxiboa daukagu. Hemen prentsako albistek bereizten dira, sailkapen tematiko eta biografikoen arteko bereizketa eginez. Albiste horiek informazio orokorreko egunkari eta aldizkarietatik hautatzen dira. Bestetik, kontsultarako liburutegia dugu. Hemen erreferentziatzko lanak aurkituko ditugu: hiztegiak, entziklopediak, urtekariak, direktorioak, estatistikak, atlasak... liburu eta CD-ROM formatuan. Gainera, zinema eta telebistako oinarritzko lanak hemen topa daitezke.

Dokumentazio Zerbitzuak honakoa eskain dezake: eskari laburrei erantzun arina (data jakin bat, izen konkretu bat...), informazio zehatza (kronologikoak,

biografikoak), informazioaren difusio hautatua eskaintzen duen zerbitzua, albiste garrantzitsuenen laburpenak (dataren arabera, gaiaren arabera...) eta, azkenik, hemerrotekak prentsako albisteen artxibo digitala kudeatzen du. Kopurua: Tiff formatuko 500.000 orrialde ditu, zabalkunde osoa 650.000 erregistrokoa da.

3. Fonoteka Zerbitzua

Saioetarako girotze musikolari buruzko informazio eta materiala eskaintzen ditu. Liburutegiko entzunezko materiala (telebista eta irratirako berezituak), musika komertziala eta soinu-efektuak ere eskaintzen dizkio erabiltzaileari. Horrez gain, bolada, saioetarako kareta, musika hondo eta sintoniekin hornitzen du erabiltzailea. Urtero audio formatuko bi mila orduko grabazioak gordetzen ditu mpg-2 formatuan (disco gogor eta euskarri periferikoetan). Aipatu behar da ere 60.000 abestietako artxiboa duela, momentu horretan ia dena digitalizaturik dagoelarik. Gaur egun, Intraneten bitartez abestiak entzun eta deskargatu daitezke.

4. Bideoteka Zerbitzua

Bideoteka Zerbitzuak *ETB*ren emisioak eta, batez ere, *ETB*k ekoiztutako saioak gordetzen ditu. Informatiboen eta etxeko ekoizpenen tratamendu dokumentala egiten du, artxibatutako materialaren deskribapena eta indizea osatzen duten datu-baseen bidez. Emisioko zintak ere prestatzen ditu, Aurkezpen Sailaren esku utziz.

Horrez gain, euskarri dokumentala eskaintzen die barneko erabiltzaileei eta kanpoko erabiltzaile baimenduei (irudiak, audioa eta informazioa). Dokumentazio Saila *ETB*ko barneko zerbitzu bat da eta kontsultak egiteko erabiltzaileak barneko langile moduan identifikatu beharko du bere burua.

Bideoteka *ETB*ko ikus-entzunezko artxiboa da. Hemen 225.000 bideozinta kontserbatzen dira zenbait formatutan, batez ere Betacam sp eta Betacam digitalean. Guztira, bi mila ordu baino gehiagoko grabazioak ere badaude (bideoklipak), dvcpro 25 formatuan. Artxiboak hainbat bildumek osatzen dituzte: telebista saioak (etxean zein kanpoan ekoiztutako saioak), albistegi eta kirol saioak (albistegien eta kirol saioen editatzeen konpaktazioa gordetzen da bertan), jatorrizko grabazioak, agentzietako materiala (nazioarteko agentziana —Reuters, Visnews, Upi—). Forta agentzietatik Espainiari buruz jasotako albisteak artxiboan kontserbatzen dira, aldeztu aurretiko hautaketa eginez. Emisioaren kopia juridikoa, material historikoa, erositakoa edo lagatua ere gordetzen da bideotekan.

Ezaugarri teknikoak: Datu-baseetan gordetzen den materiala dokumentalista batek aztertu, deskribatu eta indexatzen du, Airs sistema dokumentaleko datu-baseen bidez erreperera daitekeena. Audiovi datu-basean 345.000tik gorako erreferentziak daude. Zerbitzu horrek honakoa eskaintzen du: berrera-

tzeko artxiboko irudiak, emititutako edozein gai bati buruzko informazioa, eta emititutako programazioari buruzko informazioa.

Kontsulta baten bidez, bilaketak egiteaz arduratzen den dokumentalistak datu-basean aurkitzen ditu materialik egokienak. Biltegian zintak aurkitu eta erabiltzaileak mailegu zerbitzuaren bidez jasotzen ditu.

5. Biltegia

Dokumentatutako material guztia biltegietan gordetzen da, bere kontserbazioa errazteko. Bi biltegi daude, bat Bilbon (albistegi eta kirol saioak) eta bestea Miramonen (telesailak eta bestelako saioak). Zintak tenperatura eta hezetasun egoera egokian gordeta daude (18° C inguru) eta zaharrenak bideo sistema digitalera transferitu dituzte, beraien kontserbazioa errazteko.

Materialaren kontserbazioa Dokumentazio Zentruaren hastapenetatik ematen da. Biltegi honetan 1983. urtetik aurrerako materiala gordetzen da.

6. Etorkizunerako egitasmoak

Momentu honetan, digitalizazio-prozesu baten barruan dago Bilboko Dokumentazio Zerbitzua. Horrez gain, disko gogorra oinarri duen fonoteka eta diskoteka birtual baten sorkuntzan lan egiten ari dira.

Euskadi Irratia

Irrati publikoa

Enpresaren izena: Euskadi Irratia**Komunikabidearen zabalkunde eremua:**Euskal Autonomia Erkidegoa eta inguruak
(Ipar Euskal Herria, Nafarroa...)**Webgunea:** <http://www.eitb.com>**Helbidea:** Miramón Pasealekua 172, 20014 Donostia**Telefonoa:** 943 01 20 00**Harremanetarako pertsona:** Iñigo Zeberio**Posta elektronikoa:** Ceberio_inigo@eitb.com**Sortze data:** 1982**Erabiltzaile mota:** Kazetariak. EiTB esparruko lankide-
goari mugatua**Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua:** Bi

Gara

Egunkaria

Enpresaren izena: Baigorri Argitaletxea S.A.**Komunikabidearen zabalkunde eremua:** Euskal Herria**Webgunea:** <http://www.gara.net>**Helbidea:** Portuetxe, 23, 2.A. 20018 Donostia**Telefonoa:** 943 31 69 99**Fax:** 943 31 69 98**Harremanetarako pertsona:** Eguzkiñe Agirrezabalaga**Posta elektronikoa:** eagirrezabalaga@gara.net**Sortze data:** 1999ko urtarrila**Erabiltzaile mota:** Kazetariak**Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua:** Bat ere ez

1. Prentsa artxiboaren datuak

Funtsak: Egunkarian ez dago dokumentazioari dagokion sekziarik. Phrasa lizentzia bidezko programa informatikoa da, eta hori da hain zuzen ere *Garan* erabiltzen dutena. Erabiltzaile eta pasahitza izanda, edozein kazetarik erabil dezake. Idazgela bakoitzean programa hau duten zenbait ordenagailu dago. Ordenagailuak berak ordenatzen du materiala, egunero egunkaria ixterakoan datu-baseak automatikoki gordetzen du guztia. Aurreko eguneko egunkari osoa kontsultazeko aukera bermatzen du.

Horrez gain, EFE Espainiako agentziako datu-basearen harpideduna da *Gara*.

Ezaugarri teknikoak: Phrasa programa.

2. Argazki artxiboaren datuak

Funtsak: Argazki Press agentziak enkargu bidez egiten ditu argazkiak egunero, eta egunero ere bidaltzen dituzte. Phrasa datu-basera sartu egiten dira hauek. Satellite bidez heltzen dira datu-basera, ez Interneten bidez. Argazki bakoitzari datu batzuk gehitzen dizkiote argazkilariek eurek (data, lekua, argazkilaria, gaia, azpigaia, deskribapena...) eta, ondoren, programak informazio guztia prozesatu egiten du. Gaiak: Orotarikoak. Herrialdeak: Edozein. Hizkuntzak: Gaztelania (EFEk hasiera batetik informazioa gazteleraz bidaltzen zuelako).

Ezaugarri teknikoak: Phrasa programa. Bestalde, agentzietako datu-baseak (EFE, France Press eta Europa Press).

3. Eskaintako beste zerbitzu batzuk

Egunkariaren zenbaki guztiak paperezko euskarrian gordeta daukate, liburuak osatuz. *Gara* sortu zenetik, material guztia digitalizatuta dago, batez ere kanpoko eskakizunei begira.

Komunikabidearen zabalkunde eremua: Araba
Webgunea: <http://www.noticiasdealava.com>
Helbidea: Avenida Gasteiz 22, bis, 13. bulegoa. 01008 Gasteiz.
Telefonoa: 945 16 31 00
Fax: 945 15 43 44
Harremanetarako pertsona: Isabel Muñoz
Posta Elektronikoa: documentacion@noticiasdealava.com
Sortze data: 2004ko azaroaren 10a
Erabiltzaile mota: Erredakzioa, publizitatea, marketing-a eta administrazioa
Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua: Hiru



1. Prentsa artxiboaren datuak

Funtsak: Egunkarian argitaratutako guztia gordetzen da. Artikuluak automatikoki datu-basean gordetzen dira eta maketazioak aurretiaz erabakitako guneetan banatzen dira. Egunkaria sortu zenetik ekoiztutako testu guztiak gordetzen dira. Horrez gain, argitalpenaren pdf-ak —gehigarriak barne— gordetzen dira, eta *Diario de Noticias de Álava* egunkariaren bi bilduma enkuadernatuak dituzte. Kontsultarako eta fotokopiatzeko eskain dezakeen erosotasunagatik, bi hilabeteko epea daukaten egunkariak ere bloketan mantentzen dituzte.

Ezaugarri teknikoak: Erabiltzen den datu-basea Mediagrid izenekoa da eta zenbait liburutegitan banatuta dago:

- Testuak (artikuluak).
- Zain dauden irudiak (oraindik dokumentatzeke dauden argazkiak).
- Historikoa (argazki digital eta digitalizatuen artxibo historikoa).
- Pdf (pdf formatuko orrialdeak).

Egunkariko langileek kontsultak barneko sarearen bitartez egiten dituzte; gainontzeko erabiltzaileek Interneten bidez hemeroteca kontsulta dezakete.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoaia: Hiztegi egoki eta kontrolatu bat erabili ahal izateko aukera dagoen arren (deskriptore ez-hierarkikoak), denboraren gabeziak ez du gauzak behar bezala gordetzen uzten, eta bilaketak testu librean egitera derrigortzen du.

2. Argazki artxiboaren datuak

Funtsak: Gaur egun artxibatzen diren argazki guztiak digitalak dira eta denak datu-basean gordeta daude. Kaleratutako argazki guztiak eta plazaratu ez diren argazki hautatuak artxibo historikoaren parte dira. Horiek behar bezala berreskuratu

ahal izateko, interesatuak beharrezkoa du datu-basean kontsulta egitea. Kopurua: 575.000 argazki digital, guztiak ere artxibo historikoaren parte dira.


Ezaugarri teknikoak: Mediagrid izeneko datu-basea. Barneko sarearen bidez kontsultagarria.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoia: Kontrolatutako hiztegia (*keywords*-ak edo deskriptore ez-hierarkikoak).

3. Eskainitako beste zerbitzu batzuk

Diario de Noticias de Álava egunkariko langileek *Noticias de Navarra* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkarietako artxiboak kontsulta ditzakete, argitalpen talde berekoak baitira: Noticias Taldekoak, alegia.

Enpresaren izena: Noticias de Gipuzkoa
Komunikabidearen zabalkunde eremua: Gipuzkoa
Webgunea: www.noticiasdegipuzkoa.com
Helbidea: Tolosa Etorbidea, 23. 20018 Donostia
Telefona: 943 31 92 00
Harremanetarako pertsona: Joaquin Aranburu Bravo
Posta elektronikoa: documentacion@noticiasdegipuzkoa.com
Erabiltzaile mota: Kazetariak
Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua: Bat



1. Prentsa artxiboaren datuak

Funtsak: Gaiak: orotarikoak. Herrialdeak: Mundu zabala. Hizkuntzak: Euskara.

Ezaugarri teknikoak: Datu-base nagusia Iruñean dago eta hiru egunkarien datuak jasotzen ditu. Bi urteko dokumentuak gordetzen ditu, pdf formatuan.

2. Argazki artxiboaren datuak

Funtsak: Agentzietako argazkiak (Argazki Press, EFE, *Le Journal*), bertako kazetariak lortutakoak edo jendeak emandakoak. Gaiak: orotarikoak. Herrialdeak: mundua. Hizkuntzak: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa.

Sailkapen sistema edo dokumentazio lengoaia: Mediagrid programa eta IPTC egokitua. Argazkiak maketatzeke Millennium programa erabiltzen dute.

3. Eskaintako beste zerbitzu batzuk

Jendeak argazkiak eskuratzeko bideak jarri dituzte, ordainduta edo doan. Beste komunikabideekin ere artxibo elkartrukeak egiten dituzte.

Radio Euskadi

Irrati publikoa

Enpresaren izena: Radio Euskadi

Komunikabidearen zabalkunde eremua: Euskal Herria

Webgunea: <http://www.eitb.com>

Helbidea: Basurtuko Kaputxinoak, 2. 48013 Bilbo

Telefonoa: 944 01 24 00

Harremanetarako pertsona: Itziar Mendia

Posta elektronikoa: Mendia_itziar@eitb.com

Sortze data: 1982

Erabiltzaile mota: Aurrez aurreko kontsultak, mailegu zerbitzua eta Intranet bitartekoa

Dokumentazio Zerbitzuko langile kopurua: Bi



Radio Vitoria

Irrati publikoa

